

-Ki aditz-atzizkiaren gainean

PATXI ÍÑIGO*
PATXI SALABERRI**
JUAN JOSÉ ZUBIRI***

1. ARTIKULUAREN ZERGATIA

Lan hau moldatzera bultzatu gaituzten arrazoien artean bi dira aipagarrienak: lehenik, gure lanbidea dela medio gaian sakontzeko beharra sentitu dugu, ikasleei erabateko ikusgunea emateagatik; bigarrenik, euskara batuaz idatzitako testu gehienetan –baina ez erraterako Mitxelenaren artikulu zoragarrietan– -ki aditz-atzizkiari eskuarki gerundio-balioa ematen zaio, «izaki» adibidez «izanez» edo «izanik»-en baliakidea balitz bezala, neurri batez behintzat irakasle, kazetari eta idazleok eskueran ditugun hiztegietan –Azkuenera, Sarasolarena, *OEH*– gerundio-balio hori ematen zaiolako, erabilera hau nafar belarri gehienentzat aski mingarria delarik, hemengo usadioa bes-telakoa baita, ikusiko dugunez aipatu horretatik franko urruti dagoena, behin edo beste agian gerundiotzat jo litekeen arren.

Lan honen xede nagusia, hortaz, atzizki honen gure egunotako erabilera okerra salatu eta ahal den heinean zuzentzeko bidea urratzea da, Nafarroako erabilera –erabilerak hobeki erran– ezagutzera emanez, euskararen mesedetan izanen delakoan.

* Iruñeko Hizkuntz Eskola.

** NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

*** NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa).

2. -KI ADITZ-ATZIZKIA EUSKAL LITERATURAN ETA TESTU ZAHARRETAN

Atzizki hau aurrenekoz lehen euskal liburua den Bernart Etxepareren lanean aurkitzen dugu, ez guztiz modu argian, Azkue, Lhande, Lafon eta Mitxelena iritzi desberdinak aintzat hartzen badira. Hau da **-ki**-dun adizkia azaltzen den pasarte:

“Parti albanenguidio harc ezluque pareric / Alavana nic ezticit hayn hon deriçadanic / Amore bat onhexi dut guciz soberatuqui / Ene arima eta vihoça iossi dira harequi / Haren yrudi ederrori veguietan **ehoki** / Harçaz orhit nadi-nian vihoza doat ebaqui”¹.

Azkuek bere hiztegian² “**Ehoki**, tener: *tenir, posséder*. (Dechep.)” besterik ez dakar; Lhandek ere, maisuaren urratsei jarraikiz, antzeko zerbait dio³: “**Ehoki**: (d’Ech.) *tenir, posséder*. [Cf. *iduki*.]”. Lafon ez dago inola ere aurreko bi hiztegiileen ados, eta **egon**-ekin lotzea proposatzen du, Lhanderen hiztegian azaltzen den **egoki**-n oinarri harturik. Honela dio:

“Mais comment faut-il interpréter *ehoki*, qui n’est attesté qu’ici? Azkue, suivi par Lhande, le traduit par «tenir, posséder», et indique comme référence: «Dechepare», sans plus de précision. Il tient sans doute cette forme pour une variante de *eduki*, salaz. *edoki* (...) Je crois que *ehoki* est une variante de *egoki*, adjectif verbal de *egon*, signifiant «qui demeure, qui est en repos» (Lhande); on peut ajouter «qui est en permanence». On lit dans le Dictionnaire de Lhande (s. u. *egoki*): «*Bazoaz, bazabiltza? Bai eta zu egoki, ou bazau-de? Vous allez? Oui, et vous demeurez?*» *Egoki* peut donc s’employer sans verbe, avec la même valeur qu’une forme personnelle de *egon*. Dans ce passage de Dechepare, *ehoki* équivaut à *dago*, et le vers signifie «sa belle image est en permanence dans mes yeux»⁴.

Mitxelena ez dago ados René Lafonek egiten duen azalpenarekin, eta *eho* ‘aleak eta, sakatuaz, joaz edo bi pieza gogor eta latzen artean iragan eraziaz, birrindu edo haustu’⁵, ‘ehun’-ekin lotu nahiago du, *ehoki egoki*-rekin erlazionatzeko arazo fonetikoak izateaz beste, *eho*-ren erabilera metaforikoaren adibide zahar bat baitago gutxienez. Honela dio hizkuntzalari errenteriarak:

“Lafon se inclina por una variante de *egoki*, derivado de *egon*. Siempre he pensado que esa sustitución de *-h* por *-g* era difícilmente aceptable por razones fonéticas (...) Leizarraga tradujo así el versículo 19, del cap. 2º del Evangelio de San Lucas: «Eta Mariac beguiratzen cituen gauça hauc guciac, bere bihotzean ehaiten cituela». En la Vulgata: «*Maria autem conseruabat omnia uerba haec, conferens (gr. *sumbállousa*) in corde suo*». No sé cuál sería el término francés usado en la traducción calvinista que Leizarraga tenía a la vista,

1. *Linguae Vasconum Primitiae*, Patxi ALTUNAK prestatu argitarapena, Mensajero, Bilbo, 1980, 150-152. Letra beltza gurea da.

2. *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbo, 1905.

3. *Dictionnaire Basque-Français*, Paris, 1926.

4. “Notes pour une édition critique et une traduction française des «*Linguae Vasconum Primitiae*» de Bernard Dechepare”, *BRSVAP*, VIII (1952), 139-180.

5. Ibon SARASOLA, *Hautu Lanerako Euskal Hiztegia*, GK, 1984az geroztik.

pero en todo caso no hay duda de que el sentido de gr. *sumbállo* en ese pasaje es el de «considerar, meditar».

Y también me parece indudable que *ehaiten* (transitivo!) es el sustantivo verbal de *eho* «moler» y «tejer». Y, puesto que tenemos un ejemplo indudable de *eho* usado en sentido traslaticio, no hay dificultad tampoco para admitir que el verso arriba citado de Dechepare significaría también literalmente: «Moliendo (o tejiendo) en mis ojos su hermosa imagen»⁶.

René Lafonek Mitxelenaren interpretazio hau arbuiaitu eta berak lehen emandakoari eusten dio:

“Luis Michelena a proposé une interprétation différente de celle que j’avais proposée de la forme *ehoki*. Il la rattache au verbe *eho* «tisser» et «moudre» (sans doute s’agit-il de deux verbes homonymes), et il pense que le vers signifierait littéralement «moliendo (o tejiendo) en mis ojos su hermosa imagen». Mais aucun de ces deux sens ne convient (...). Comme le vers précédent et le vers suivant ne contiennent que des formes verbales personnelles de la 1re classe, ou si l’on préfère, intransitives, et que *ehoki* n’est accompagné d’aucun mot indiquant l’agent, il est naturel de le considérer comme tiré d’une racine verbale de la 1re classe, en l’espèce de celle de *egon*...”⁷.

Mitxelenak bi hamarkada beranduago lehengoan segitzen du, Etxepare-ren lana biltzen duen liburuan⁸:

“Idatzi izan dut, esate baterako, eta lehengoan nago oraindik, Lafon’en irizkiaren kontra, «Amorosen partitzia» deritzan poemaren bertso batean (Haren irudi ederrori begietan ehoki), *eho*-ren forma dugula aurrean, ez *egon*-ena”.

Patxi Altunak lan horretan berorretan egindako itzulpenean honela euskaratzen du zorioneko bertso hori:

“A una amante he amado muy exageradamente; / A ella pegados van mi alma y corazón; / Fija está en mis ojos su hermosa figura. / Cuando en ella pienso, el corazón se me parte”⁹.

Miren Intxaustik, berriz, honela iraultzen du frantsesera:

“J’ai voué à une femme un amour tout à fait excessif; / Mon âme et mon coeur se sont liés à elle; / Sa belle image est sans cesse dans mes yeux; / Quand je pense à elle, mon coeur se fend”¹⁰.

Leizarragaren lanean badira -ki-dun adizkiak, baina aditzondotzat erabiliak daude, hau da, ez dira hemen aztertu nahi ditugun formen artean sartzen. Cf., adibidez, honako pasartetxo hau:

“Eta ethor citecen **lehiatuqui**, eta eriden citzaten Maria eta Ioseph, eta haourtchoa mangederán eçarria”¹¹.

6. “Dechepariana”, *BRSVAP*, XI (1955), 281-282.

7. “Decheparena”, *ib.*, 433-434.

8. *Olerkiak. Bernart Dechepare. 1545*, Txertoa, Donostia, 1978, 11. or. MITXELENAREN sarrera *Euskal idazlan guztiak V*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 21-30, liburuan argitaratu zen berriz.

9. *Olerkiak*, 114-115. orr. Letra beltza gurea da.

10. *ib.*, 196. or. Letra beltza gurea da.

11. *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 482. or. Letra beltza gurea da.

Axularrek ere baditu **-ki-dun** formak, baina beti aditzondoak dira, ez aditzak. Cf., adibidez, hurrengo pasarte hau:

“Hala da bada gueçurrez iuramentu eguitea: hartan laincoa bera bere presunan vquitcen da. Ceren laincoa **icendatuqui**, gueçurraren aithor, eta leccuco eccartcen baita: cein baita beccatu handia, eta itsusia”¹².

Honela itzultzen du pasartetxo hau Aita Luis Villasantek:

“Pues bien, así es el jurar con mentira: con ello se le toca a Dios mismo en su persona. Porque **expresamente** se trae a Dios por garante y testigo de la mentira, lo cual es un grande y feo pecado”¹³.

Berdin beste batzuetan:

“Beraz veldur garela behar dugu bici, **behatuqui** ibili, eta gueure indarrean baiño, laincoaren faborean fidatcen ago garela (...)”¹⁴.

Honela iraultzen du hau euskaltzainburu ohiak:

“Por lo tanto, debemos vivir temerosos, andar **con tiento**, y, confiando más en el favor de Dios que en nuestra fuerza (...)”¹⁵.

Aipamen hauetako **lehiatuki**, **izendatuki** eta **behatuki** horietan ikusten denez, **-ki** aditz-atzikia partizipioaren gainean eraikitzen da, nafarrerazko eta bestetako **-ki** horiek itxuraz aditzoina eskatzen duten bitartean (ikus beherago). Bestalde, Leizarraga eta Axularren **-ki-dun** formek aditza dute ondoan, aditzondoak diren seinale: «leihatuki etorri», «izendatuki ekarri», «behatuki ibili». Gure erabileran berriz, **-ki-dun** formak berak dira aditz.

Batzuetan **-ez** dugu gaia sakonki aztertu— Axularrek partizipio hutsa erabiltzen du goi-nafarrera mintzatzen den alderdian (alderdiaren zati handienean, baina ez guztian. Ikus atzizki honen hedadura geografikoa aztertzean dioguna) **-ki-dun** forma erabil genezakeen tokian. Cf., erraterako:

“...halaco moldez, ecen ethortcen çarenean halacoequin miñatcera, erranen baiteratçute, ezteçaquetela bere esperantça, çurearequin truca: eztaducata nehor ere bere buruac baiño sainduago, eta ez prestu ago: nor nahi den beçain ongui laincoari gomendatcen çaitçala. Eta bitartean beharrietaraiño beccatutan barrena **sarthuac egon**”¹⁶.

Guretako garbi samar dago **egon** hori hor hanpatzailea dela, alegia, perpaus hanpatua sortarazten duela, eta beraz «sarthuak egoki» erabiliko genukeela, edo hobeki erran, «sarthuak egoki» erabil litekeela, «sarthuak daude» paratuz gero perpausak daukan indar berezi hori galtzen baitu. Gaztelaniaz honela itzuliko genuke Axularren pasartearen azken perpaus hori: “Y en cambio **resulta que** están metidos en el pecado hasta las orejas (hasta el cue-

12. *Axular*, Gvero, Bordele, 1643, 255. or. Euskaltzaindiak facsimil eran argitaratua, 1988an. Letra beltza gurea da.

13. *Gero*, Jakin, Arantzazu, 1976, 286. or. Letra beltza gurea da.

14. 1643ko argitarapena, 459.

15. 1976ko argitarapena, 516.

16. 1643ko argitarapena, 150. Letra beltza gurea da.

llo)”. Nolanahi ere, **-ki** ibiltzen ez duten eskualdeetan partizipioa ohikoa da lekune horretan, eta **-ki** ibiltzen dutenetan anitzetan ere bai.

Ikus daitekeen bezala, bada Axularren azken pasarte horretan bi punturen arteko kontrajarpena: alde batetik mintzagai hartzen diren horiek sainduak direla diote, halakotzat hartzen dituzte beren buruak, baina egiazki bekatari hutsak dira. Kontrajarpen hori nabarmentzeko aditz laguntzailea ezabatu du Axularrek; guk **egoki** ibiliko genuke, arestian erran bezala.

Gure egunotako idazle gipuzkoarrek ere badituzte honelakoak, nafarreraz mintzatzen garenetako askok **-ki** atzizkidun forma ibiliko genukeen tokietan. Cf. Bernardo Atxagaren adibide hauek:

“Nor izango eta behia **izan**. Denak berarekin ahaztuta **egon** nonbait”¹⁷.

“Baina aurreneko behi hura ergela **izan**, eta gure mordoxka zenbatekoa zen galdetu ez”¹⁸.

“Ordea, artean jaioberria **izan**, eta ezinezkoa egin zitzaidan maldizio zatar bat aurkitzea”¹⁹.

“Jakina, umea **izan** eta artean ez **jakin** munduan hizkuntza desberdin asko zeudenik”²⁰.

“Proba bat jarri dizut bururik duzun ala ez ikusteko, eta zuk **eduki** alajaina”²¹.

Nafarreraz honela erranen genituzke perpaus hauek:

“Nor izango eta behia **izaki**. Denak berarekin ahaztuta **egoki** nonbait”.

“Baina aurreneko behi hura ergela **izaki**, eta gure mordoxka zenbatekoa den galdetu ez”.

“Ordea, artean jaioberria **izaki**, eta ezinezkoa egin zitzaidan maldizio zatar bat aurkitzea”.

“Jakina, umea **izaki** eta artean ez **jakinki** munduan hizkuntza desberdin asko zeudela”.

“Proba bat jarri dizut bururik duzun ala ez ikusteko, eta zuk **edukiki** alajaina”²².

P. Argainaratzek 1665ekoa den *Devoten breviariora* delakoan **-ki**-dun forma bat darabil:

“Huna exempluçat huna / Cer garen bat bedera, / Guc propioqui duguna / lurrac **ioaqui** lurrera”²³.

17. *Behi euskaldun baten memoriak*, Pamiela, Lizarra, 1991, 34.

18. *Ib.*, 35.

19. *Ib.*, 40.

20. *Ib.*, 47.

21. *Ib.*, 57-58.

22. Hau Lekuonak dioenez erabilia da Oiartzunen; guk, ordea, **izaki** erranen genuke, eta Iparraldeko zenbait tokitan gutxienez **ukanki**. Iturenen **eduki** ibiltzen dute honelakoetan, **-ki** bakarrarekin, eta Leitzaan, Patziku Perurenaren lekukotasuna aintzat hartuz gero, **edukio**.

23. MITXELENAK aipatzen du, Villasanteren *Sintaxis* laneko (ikus gorago) 206. orrialdean. Hemen, itxuraz, hizkuntzalari errenteriarak atzendu egin du Etxepareren aipatu bertsoa, honela dio eta: “Ese supuesto valor de consideración generalizadora es el que el sufijo parece tener en el ejemplo más antiguo que conozco, y es labortano (...)”.

Juan de **Beriainen** *Tratado de como se ha de oyr missa* delakoan²⁴ ez dugu aurkitu, ez eta ere **Tartasen** *Onsa hilceko bidia* deritzan lanean²⁵; Joanes **Etxeberri Ziburukoaren** *Noelak*²⁶ eta *Manual Devotionezcoa*-n ere ez da ageri²⁷, eta orobat **Silvain Pouvreauren** *Iesusen Imitacionea*-n²⁸ eta *Andre Dona Maria Priuilegiatua*-n²⁹. Kontsultatzerik izan ez dugun autore honen *Philotea*-n, aldiz, azaltzen da, Ythurriren arabera³⁰. Bernard **Gasteluçarren** *Eguiaç Catolicac Salvamendu Eternalaren Eguiteco Necesario Direnac* delako lanean³¹ ez dugu -ki-ren lekukotasunik bakar bat ere ediren, ez eta ere Athanase **Belaypeyrenen** *Catechima Laburra eta Jesus-Christ Goure Gincó Jaunaren Eçagutçia, Salvatu Içateco*-n³².

Pierre D'Urtek ez du alerik erabiltzen 1700 inguruan idatzi eta *The Earliest Translation of The Old Testament* izenpean argitara eman den testuan³³; Joanes **Haranederren** *Jesu Christoren Evangelio Saindua* izeneko lanean adibide bakarra aurkitu dugu, non zalantzarik gabe -ki-dun adizkia aditz trinko baten ordeztu baitago:

“Eta hassi Moise ganic eta profeta gucietaric, explicatu çarozten Escritura gucietan hartaz erranac içañ cirenac. Hurbill içañ cirenean ciohacen herritic eguin çuen iduri hura urrunago **goaqui**”³⁴.

Hemen, bistan denez, **goaqui** hori «zihoala» moduko adizki baten ordeztu dago. Leizarragak honela itzultzen du pasartetxo hau:

“Guero hassiric Moyses baitharic eta Propheta gucietaric, declaratzen ce-rauzten Scriptura gucietan harçaz beraz ciraden gauçac. Eta hurbil citecen ioaiten ciraden burgura, eta harc vrunago **ioaitera** irudi eguiten çuen”³⁵.

Joanes **Etxeberri Sarakoaren** lanetan³⁶ ez dugu -ki-dun adizkirik harrapatu, ez eta ere Francisco **Elizalde** nafarraren *Dotrina Christiana Uscaras* delakoan³⁷.

24. Iruñea, 1621.

25. Andolin EGUZKITZAK paratu argitarapena, Jakin, Arantzau-Oñati, 1975.

26. 1630. urte aldera eman bide zuen argitara lana (ikus Koldo MITXELENAREN *Historia de la literatura vasca*, Erein, Zarautz, 1988, 75-76), baina ez dugu horren berri; guk Baionako 1697 edo 1699ko argitalpenean oinarritzen den Lino AKESOLOK paratutakoa (Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S.A., Donostia, 1970) erabili dugu.

27. Lehen argitarapena 1627koa da, baina guk 1669koa oinarri harturik Lur-ek 1978an egin zuena erabili dugu.

28. Paris, 1669. Guk Lur-ek 1979an Zarautzen egindako argitarapena erabili dugu.

29. Lur, Zarautz, 1978.

30. ITHURRY, *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin*. Ikus beheitiago.

31. 1686an izan zen argitaratua lehenbizikoz, Paben. Guk Lino AKESOLOK paratu edizio kritikoa erabili dugu, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

32. Jean Louis DAVANTEK paratu edizio kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

33. Oxford, 1894.

34. *Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Patxi ALTUNAK paratu argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 168.

35. *Testamentu Berria*, 595.

36. *Obras Vascongadas del Doctor Labortano Joannes D'Etcheberri*, Julio DE URQUIJOK paratu argitarapena, Paris, 1907.

37. Iruñea, 1735.

Sebastián Mendibururen *Jesus-en Bihotza-ren Devocioa*-n³⁸ eta *Idazlan Argitarabeak*-en³⁹ ere ez dugu -ki-dun formarik opatu, ez eta Cardaberazen *Ondo Illtzen Icasteco, eta Ondo Illtzen Laguntceco Egercicioac* deritzan liburuan ere⁴⁰. Juan Antonio Ubillosen *Christau doctriñ berri-ecarlea*-n⁴¹ ez dugu alerik aurkitu, ez eta Pedro Antonio Añibarroren *Escu-liburua ta berean eguneango cristiñau-cereguiñac*⁴² eta Fray Bartolomé Santa Teresaren *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba*⁴³ direlakoetan ere, baina Elkanoko Lizarragaren liburuetan –ez denetan⁴⁴– behin baino gehiagotan azaltzen da:

“Norc emanlezádan contriciobát ain érrua, ezi acabanádien penas? Motivoríc áscoda: ene Jauna **izáqui** ain ón amáblea beréz; ta berce álde ain nere amazále fiña (...)”⁴⁵.

“Oh! nolaco purgatórioa passaracicióten gure becátuec Jesus onarí! Cer dá arren áldean guc passatzendugúna? Eta berac ez **izáqui** purgatzecoric, bai guc”⁴⁶.

“Solamente ayen casos daique mógui Jangoicoa emátera gracia paratzecó gracian. Au dá on gucién andiéna, ta iragazvideric obéna, bere on eguines irabáci, berceec eguines ere **izáqui** páрте, beira cein ón dén!”⁴⁷.

“Bada istanteóro barimbagaizque eróri, ezpagaizque manténi chutiríc istantebátes ere gueuren indárres, nola ma(n)tenitu beti azquén punturáño? Eta puntugártaic **egóqui** pendiénte eternid(ade)a”⁴⁸.

“*Bercerén béguian icustendú iláun pichsca ére, bereán ez solivoa ere*, dión becála Jesus ónac. (Math. 7.) Eta naiz icusiric eztunái aguérту, eztunái itsústu bere buruá; eta au **izaqui** confessioarén gala. Nóndic eldudá defendátzea bere búrua, ta ezin acertátzea ematerá bere contra: Eta au **izáqui** confessioarén gra(ci)a (...)”⁴⁹.

“Naiz bai, alaére Jang(oico)ac paratudigu bere légues, *Luxuriásco becururic inetxzágula*: eta niórc ezin dispénsa. Beregánic ain viciátua persóna **izaqui**: gueró Deabruaren esp(iri)tu gaichstoa inspiráció gaichstos continuo incitatz(e)n **egóqui** (...)”⁵⁰.

38. Iruñea, 1751.

39. Patxi ALTUNAK paratu argitarapen kritikoa, Mensajero, Bilbo, 1982. Bigarren liburua besterik ez dugu arakatu.

40. Tolosan, 1816an egin argitarapena erabili dugu.

41. Tolosa, 1785.

42. Tolosa, 1802.

43. Iruñea, 1816.

44. *Koplak*, Juan APECECHEA PERURENAK paratutako argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, lanean ez dugu alerik opatu. Ikertzaile honek beronek kaleratutako “Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el siglo XVIII”, *FLV*, 19, 1975, 89-127, eta “Tratado sobre el matrimonio de Joaquín Lizarraga (año 1782). VII”, *FLV*, 56, 1990, 277-301, testu luze samarretan ere ez da agertzen -ki-ren lekukotasunik.

45. *Ongui Illtzen Laguntzeco Itzgiaic*, Frantzisko ONDARRAK paratu argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 115.

46. *Ib.*, 128.

47. *Doctrina Christioarén Cathechima*, Juan APECECHEAK paratu argitarapena, PV-Euskaltzaindia, Iruñea, 1979, 215.

48. *Urteko Igande Guzietarako Prediku Laburrak*, Frantzisko ONDARRAK prestatu argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1990, 229.

49. *Ib.*, 246.

50. *Ib.*, 262.

Ikusten denez, lekukotasun hauek erakusten duten erabilera bat dator gaur egun Nafarroako hainbat tokitan egiten denarekin; honek bide ematen du, diogun bidenabar, orain euskara galdurik dagoen beste leku anitzetan ere **-ki** aditz-atzizkia ibiltzen zutela pentsatzeko. Idazle horren laugarren eta bosgarren pasarteak, konparaziora, honela itzuli behar genituzke gartzelaniara:

“Pues si podemos caer en cualquier momento, si no nos podemos mantener en pie con nuestras propias fuerzas, ¿como mantenerse siempre hasta el punto final? Y resulta que la eternidad está pendiente de aquel punto”.

“*Ve la mota de polvo en (el) ojo ajeno, en el suyo ni siquiera una viga*, como dice el buen Jesús. (Math. 7) E incluso viéndola no quiere enseñarla, no quiere afearse a sí mismo; y resulta que es esta la gala de la confesión. De donde procede el defenderse uno mismo, y no poder acertar a dar en su contra: Y resulta que es esta precisamente la gracia de la confesión (...)”.

Bernard Larreguyk *Testamen Çaharreco eta Berrico Historia*-n⁵¹ ez dugu bat ere aurkitu; Jusef Egiategiren *Lehen Liburia edo Filosofo Huskaldunaren Ekheia* (1785) delakoan⁵² ere ez dugu **-ki**-ren arrastorik ediren, ez eta J. B. Gámizen euskarazko olerkietan⁵³ ere. Goyhetchek, ordea, behin darabil (*goaki*) *Fableac edo Aleguiac Lafontenenetariac Berechiz Hartuac*-en⁵⁴; J. M. Hiribarrenen *Eskaldunac* olerki-liburuan lau aldiz opatu dugu mintzagai dugun atzizkia (*ibilki* eta *izaki*)⁵⁵; Bruno Etxenikek Bonaparte printzearen eskakizunez egindako baztane-rakozko itzulpenetan⁵⁶ ez dugu aurkitu **-ki**-dun formarik, ez eta ere J. B. Elissanbururen *Piarres Adame*-n⁵⁷, Lapitzeren *Bi saindu hescualdunen bizia*-n⁵⁸, Duvoisinen *Baigorriko Zazpi Liliak*-en⁵⁹ eta autore beraren *Laborantzako liburua*-n⁶⁰.

Piarres Ibarret eta Charles Bécas-en olerkietan ez da azaltzen⁶¹, baina ugaria da Hiriart-Urruty zaharraren lanean (32 aldiz aurkitu dugu. Hauek dira adizkiak: *biziki*, *egoki* (*eta*), *erabilki*, *ibilki*, *iraganki*, *izaki* (*eta*), *izakiz*, *joaki*)⁶², Jean Etxepare Medikuarenean (24 aldiz opatu dugu. Honako adizki hauek erabiltzen ditu: *ego(n)ki*, *ibilki*, *izanki*, *izaki* (*eta*), *jakinki*, *joanki*, *ukanki* (*eta*))⁶³, Manezaundirenean (5 aldiz: *iza(n)ki*, *jakinki* *eta*)⁶⁴, Larreko-

51. Baiona, 1775. Guk Lur-ek Zarautzen 1978an egindako argitarapena erabili dugu.

52. Txomin PEILLENK prestatu argitarapena, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

53. Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oreo *Poeta Bilingüe Alavés del Siglo XVIII*, Jon GOIKO-ETXEA MAIZA, Arabako Foru Aldundia-Euskaltzaindia, Gasteiz, 1984.

54. Baiona, 1852. Lur, Zarautz, 1978, 153.

55. Baiona, 1853, «Foré eta Lasserren Imprimerian».

56. *Baztango Euskalkiaz* (1), Pello SALABURUK paratu argitarapena, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1980.

57. Elkar, Lizarra, 1982.

58. Baiona, 1867, «Lamaignère alhargunaren imprimerian».

59. Juan SAN MARTINEK paratu argitarapena, Elkar, Lizarra, 1987.

60. Baiona, 1858, Andre Lamaignerren moldiztegia.

61. *Fantasia y Realidad*, Auñamendi, Zarautz, 1967.

62. *Mintzaira, Aurpegia: Gizon!* eta *Zezenak Errepublikan*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1971 eta 1972, arakatu ditugu.

63. *Buruxkak*, Elkar, Lizarra, 1980, *Jean Etchepare Mirikuaren Idazlanak. III Kazetari-tza (A) (1903-1915)*, Piarres CHARRITONEK paratu argitarapena, Elkar, Lizarra, 1988 eta *Beribilez*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1987, miatu ditugu.

64. *Artikulu Bilduma*, Euskal Editoreen Elkarte, Erandio, 1990.

renean (21 aldiz: *egoki, helduki, ibilki, izaki (eta), jakinki (eta)*)⁶⁵ eta Lafitrenean (22 aldiz: *egoki, erabilki, ibilki, izanki, izaki (eta), jakinki (eta), joaki*)⁶⁶. Jean Barbierren *Supazter chokoar*⁶⁷ behin aurkitu dugu (*izaki*), baina OEH-n biltzen denez autore beraren *Légendes du Pays Basque* delakoan *eramaki* ere agertzen da, gutxieneko kontuan.

Pedro Miguel Urruzunok ez du **-ki** erabiltzen *Ipuinak* bilduman⁶⁸; Lizardik bai, ordea, hitz-neurtuz nahiz hitz-lauz idazten duenean: autore honen poesiak biltzen dituen *Olerkiak* liburuan⁶⁹ sei aldiz ediren dugu (*izaki*, bost aldiz; *sortuki*, behin⁷⁰), eta *Itz-lauz* izenekoan behin (*izaki*)⁷¹. Orixeren lanean bitan azaltzen da *Santa Kruz apaiza*-n⁷² (*izaki* eta *ikusiki*), bostetan *Quiton arrebarekin*⁷³ (*ibilki*, behin; *izaki* bitan; *jakinki*, behin; *joaki* behin). **Hiriart-Urruty** gaztearenean *Aitaren etxerat* lanean hemeretzi aldiz⁷⁴ opatu dugu (*egoki, ibilki, iza(n)ki, jakinki, ukanki*) eta **Xalbadorren** *Odolaren Mintzoa*-n⁷⁵ zazpi aldiz (*izanki (eta)*, lau aldiz; *ibilki*, hirutan). X. J. Diharce **Iratzederren** *Biziaren Olerkia* poesia-bilduman⁷⁶ oso ugaria da; guk 56 aldiz aurkitu dugu (*egoiki*, bost aldiz; *egoki*, hamahiru aldiz; *eramaki*, bi aldiz; *ibilki*, hogeitun aldiz; *joaki*, sei aldiz; *gaki*, behin; *izaki (eta)*, bederetzi aldiz). Xipri **Arbelbidek** *Gerlako Tresna Bizidunak* kontakizunean⁷⁷ hamaika aldiz (*ibilki*, bitan; *izanki (eta)*, hirutan; *jakinki (eta)*, hirutan; *joanki*, hirutan) erabiltzen du.

Hegoaldekoetan, Mariano **Izeta** baztandarrak *Nigarrez sortu nintzan* elaberrian⁷⁸ behin erabiltzen du **-ki** (*izaki*); Hondarribiko Juan José **Irazustaren** *Nork bere bidea*-n⁷⁹ ez dugu **-ki**-dun formarik harrapatu; Arroan sortutako **Uztapide**-ren *Lengo egunak gogoar*⁸⁰ lanean ez da garanik ere azaltzen, espe-ratzekoa zenez, baina bai ordea **-bi** lekuko, aski egokiak, autore beraren *Sa-soia joan da gero* lanean⁸¹. Dena dela, aintzat hartu beharra dago, lehenik,

65. *Nafarroatik eta Lekukotasuna*, Iñaki KAMINOK paratu argitarapenak, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1992; *Gerla Urte, Gezur Urte*, Pamiela, Lizarra, 1993.

66. *Euskal Literaturaz*, Euskal Editoreen Elkarte, Oartzun, 1990.

67. Baiona, 1924. Guk Euskal Editoreen Elkarteak Zarautzen 1987an egin argitarapena erabili dugu.

68. Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988.

69. Erein, Donostia, 1983.

70. Bigarren forma hau olerkariak asmatutakoa da, inolako zalantzarik gabe.

71. Edili, Gasteiz, 1972. Lan honen hitzaurrean **-izenik** gabe heldu da **-beste** bi aldiz ageri da *izaki*.

72. Erein, Zarautz, 1985.

73. Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1987.

74. Zarautz, 1992. Segurua da idazle honen gainerako lan guztiak arakatuko bagenitu mordo handi ederra lortuko genukeela.

75. Auspoa, Tolosa, 1976. Emile Larrek egiten duen «Aintzin Solasa»-n ere behin aurkitu dugu (*izaki*).

76. Ediciones Mensajero, Burgos, 1983.

77. Elkar, Lizarra, 1986.

78. CAP, Donostia, 1982, 69.

79. Sendoa, Zarautz, 1994, 2. argitarapena.

80. Auspoa, Tolosa, 1975.

81. Auspoa, Tolosa, 1976.

puntuak behartua erabili zituzkeela **-ki-dun** forma horiek, eta gero, bertsolari ezaguna izan zen hau Oiartzunen bizi izan zela hainbat urtez, eta herri honetan, ikusiko dugunez, **-ki** oso bizirik dagoela. Hauek dira Uztapideren bi lekukotasunak:

“Ama ainbeste aundi / umiak azita, / ordurako batzuek / ezkontzen asita,
/ nola biziko diran / kezka **izaki-ta**, / guraso izatia / zer dan badaki-ta, / zerua
izango du / ondo irabazita”⁸².

“Getari’n daude lau-bost / legatz-zale txiki, / eguna baño ordu / bat lena-
go jaiki; / lanerako tokia / aldian **izaki**, / orregatik bizitzen / dirade egoki”⁸³.

Erreterriako J. A. **Loidi Bizkarrondoren** *Amabost Egun Urgain'en* elaberrian⁸⁴ ez dugu **-ki** bakar bat ere ediren; Altzan sortutako Joan Mari **Irigoi**en-ek hirutan darabil *Babilonia*-n⁸⁵ (*izaki*):

- “Eta Demetrio zalditik jaitsi, anaiak, koinata eta ilobak besarkatu
-haien artean Klemente, gazteena, zeinaren berri ez bait zekien Demetrioki,
bera gerran zegoela jaioa **izaki**- (...)”⁸⁶.

- “...bien artean banatzerakoan mundu erdiarekin konformatu beharko
bait zuen bakoitzak eta haiek ez ziren mundu erdiarekin konformatzeko gizo-
nak.

Eta mundua, bakarra **izaki**...”⁸⁷.

- “...urte batzu lehenago osaba Demetriorekin karlisten alde egin bazuen
ere orain guztiz oker zegoela ohartu bait zen, eta inoiz baino hobeto ulertzen
zuela zergatik lehen gerrako Urbistondo mariskal karlista liberal egin zen
gero, gizon argia **izaki**... eta bere umetako ametsa (...)”⁸⁸.

Pako **Aristik** ez du erabiltzen *Kcappo*-n⁸⁹, ez eta Bernardo **Atxagak** ere *Behi euskaldun baten memoriak* elaberrian.

Damaso **Intzako** nafarrak zortzi aldiz ibiltzen du **-ki** hanpatzailea (*izaki* (*ta*)) euskara herrikoiairen harrobia den *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak* lanean⁹⁰. Antonio María **Labayenek** baditu **-ki**-ren lekukotasun batzuk bere *Teatro Osoa Euzkeraz-en*⁹¹, baina *Muga* izena daraman antzerki-lana Zugarramurdi eta Sarako mugan dago girotua, euskara ere bertakoa delarik. Honi zor zaio, dudarik gabe, idazle honek **-ki-dun** adizkiak (*egoki*, *ibilki*, *izaki*, *helduki*) ibiltzea. Patxi **Zabaleta** leitzarrak ere ibiltzen du **-ki** *Nafarroako Azken Mariskala* elaberrian⁹² (*biziki eta*, behin; *ekarki*, behin; *etorki*, behin; *izaki* (*eta*), sei aldiz; *jakinki*, bitan; *joaki*, behin), eta zer erranik ez bere azken nobela den *Ukoreka*-n⁹³, honetan inork inon erraten ez dituenak ere

82. Ib., 34. Amari eskaini bertsoa. Letra beltza gurea da.

83. Ib., 220. Letra beltza gurea da.

84. Arantzazu argitaldaria, Oñati, 1968.

85. Elkar, Lizarra, 1989.

86. Ib., 46. Letra beltza gurea da.

87. Ib., 92. Letra beltza gurea da.

88. Ib., 146. Letra beltza gurea da.

89. Erein, Zarautz, 1992.

90. PV, Iruñea, 1974.

91. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1977, 1. alea, 253-281.

92. Txalaparta, Lizarra, 1991.

93. Txalaparta, Lizarra, 1994.

sartzen baititu: *aitorki* (behin), *behar izaki* (bitan), *eginki* (behin), *egoki* (sei aldiz), *ekarki* (zazpi aldiz), *eramaki* (behin), *erantzuki* (behin), *esaki* (behin), *etorki* (behin), *geldiki* (behin), *ibilki* (lautan), *igaroki* (behin), *irudiki* (behin), *izaki* (49 aldiz), *jakinki* (lautan), *jarraiki* (lau aldiz), *joaki* (hirutan), *sorki* (hiru aldiz)⁹⁴.

Goizuetan sortu eta Leitzañ bizi den Patziku **Perurenaren** lan guztietan –guk ikusi ditugunetan bederen– ageri da mintzagai dugun aditz-atzizkia: *Emily*-n (*jakinki*, behin gutxienez)⁹⁵, *Iraingo Apaiz Gaztearen Kantutegi Zaharra*-n (*izaki*, behin)⁹⁶, *Euskarak sorgindutako numeroak*-en⁹⁷ (*edukio* behin; *izaki* bost aldiz; *jakinki* behin) eta *Marasmus Femeninus*-en⁹⁸ (*egoki*, behin; *izaki*, hirutan).

Testu zaharrei dagokienez, ez dugu garanik ere aurkitu ez Koldo Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos*-en⁹⁹, ez José María Satrustegiren *Euskal Testu Zaharrak-I* bilduman¹⁰⁰, ez eta Patxi Ondarrak, Satrustegik berak eta bestek argitarara eman dituzten beste hauetan ere:

“Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de S. J. de Luz al de Vera (de 1788)”¹⁰¹, “Excomuni3n por el Abad de Urdax”¹⁰², “Textos Vascos del siglo XVIII, en Tierra de Estella”¹⁰³, “El cantar de «El Judío Errante»”¹⁰⁴, “Versos euskéricos del siglo XVIII”¹⁰⁵, “Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga sobre los bailes”¹⁰⁶, “Primer serm3n en vascuence navarro (1729)”¹⁰⁷, “Un catecismo salacenco”¹⁰⁸, “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”¹⁰⁹, “Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi”¹¹⁰, “Ezkabarteko euskara, Iruñeko udal dermioaren ondokoa, Celedonia Cenoz andrearen ahotan”¹¹¹, “Textos dialectales de documentos religiosos vascos”¹¹², “Juan Miguel Gasteiren bi «Mayatzeko Illabetia: Mariaren Illabetia» (Marie Santisimeren Devo-

94. Ez dugu uste -ki-ren erabilera hainbeste bortxatzea komenigarria denik, batez ere atzizki honek duen trinko edo trinkoaire-adiera zeharo saihesten duelako, adiera hori gure irudiko ezinbestean aintzat hartu behar delarik.

95. Elkar, Lizarra, 1987.

96. Pamiela, Iruñea, 1988.

97. Kutxa fundazioa, Donostia, 1993.

98. Elkar, Donsotia, 1993.

99. Minotauro, Madril, 1964.

100. Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.

101. A. IRIGARAY, *FLV*, 12, 1972, 345-351.

102. Jorge DE RIEZU-E. ZUDAIRE, *FLV*, 12, 1972, 371-375.

103. Manuel LEKUONA, *FLV*, 15, 1973, 369-390.

104. J. M. SATRUSTEGI, *FLV*, 21, 75, 339-361.

105. Policarpo DE IRAIZOZ, *FLV*, 22, 1976, 65-73.

106. J. M. SATRUSTEGI, *FLV*, 23, 1976, 205-234.

107. Francisco ONDARRA, *FLV*, 38, 1981, 147-173.

108. Luis MICHELENA, *FLV*, 39, 1982, 21-42.

109. L. L. BONAPARTE. Patxi ONDARRAK argitaratua, *FLV*, 39, 1982, 133-228.

110. F. ONDARRA, *FLV*, 40, 1982, 387-401.

111. Koldo ARTOLA, *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Eusko Ikaskuntza, Zarautz, 1985, 95-112.

112. J. M. SATRUSTEGI, *FLV*, 48, 1986, 289-314.

cioa) 1850-1854”¹¹³, “Textos dialectales de documentos religiosos vascos”¹¹⁴, “Textos en vascuence en el pueblo de Goñi”¹¹⁵, “Ibero. Viacrucis en bascuence de comienzos del siglo XIX”¹¹⁶, “Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)”¹¹⁷, “Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)”¹¹⁸, “Goñerrin aurkitutako beste sei testu”¹¹⁹, “Miscelánea de textos antiguos vascos”¹²⁰, “Hegoaldeko goi- nafarreraren azentua dela-ta (hurbiltze-saiakera)”¹²¹, “Goñerrin aurkitutako testuak (IV)”¹²², “Goñerrin aurkitutako testuak (V)”¹²³, “Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”¹²⁴, “Hemezortzigarren mendeko bertsoak”¹²⁵, “Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)”¹²⁶, “Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-ek izan zituen testuak”¹²⁷.

3. -KI ADITZ-ATZIZKIA EUSKAL GRAMATIKARIEN LANETAN

Aztergai dugun aditz-atzizkiak dirudienez aski izaera herrikoia izan du, eta agian arrazoï honengatik ez du sarrerarik izan euskal gramatikan, berriki arte. Atzizkia ibili izan ez den eskualdeetako gramatikan ez azaltzea, bestalde, aise ulertzen den gauza da. Guk miatu ditugun gramatika eta euskara ikasteko metodoetan –batzuetan ez dago garbi lan bat non kokatu behar den– oso gutxitan aurkitu dugu.

Bilbon 1653an argia ikusi zuen Rafael Micoleta apezaren *Modo breve para aprender la lengua Vizcayna* delakoan¹²⁸ ez da -ki-z deus erraten, Manuel Larramendik argitaratutako lehen gramatika den *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada-n*¹²⁹ bezala, ez eta Iparraldean, Baionan, 1741. urtean Martin Harriet «Notari Erreialac» karrikaratu zuen *Gramatica Escuaraz eta Francesez* deritzanean ere. 1800. urte aldera Pablo Pedro Astarloak laro-gei urte beranduago arte argia ikusiko ez zuen *Discursos Filosóficos Sobre la Lengua Primitiva*¹³⁰ izeneko lana moldatu zuen, baina aurrekoetan bezala ho-

113. Eugenio ULAYAR, *FLV*, 49, 1987.

114. J. M. SATRUSTEGI, *FLV*, 49, 1987, 97-115.

115. F. ONDARRA, *FLV*, 49, 1987, 117-140.

116. Jesús ARRAIZA FRAUCA, *FLV*, 51, 1988, 143-154.

117. F. ONDARRA, *FLV*, 53, 1988, 97-144.

118. F. ONDARRA, *FLV*, 55, 1990, 73-121.

119. F. ONDARRA, *FLV*, 57, 1991, 131-168.

120. J. M. SATRUSTEGI, *FLV*, 58, 1991, 283-299.

121. Koldo ARTOLA, *FLV*, 60, 1992, 187-227.

122. F. ONDARRA, *ib.*, 295-333.

123. F. ONDARRA, *FLV*, 62, 1993, 137-153.

124. J. M. FLORISTÁN IMÍZCOZ, *FLV*, 63, 1993, 177-219.

125. F. ONDARRA, *FLV*, 64, 1993, 531-553.

126. F. ONDARRA, *Euskera*, 38, 1993-1, 59-124.

127. F. ONDARRA, *FLV*, 63, 1994, 161-183.

128. Liburuan ez da agertzen argitaratzailearen izena, baina badirudi Fidel Fita izan zela lan hau karrikaratu zuena. Ikus MITXELENAK honetaz “La Posición fonética del dialecto vasco del Roncal”, *SHLV*, 271-297, lanean (275) dioena.

129. Salamanca, 1729.

netan ere ez da deus erraten mintzagai dugun atzizkiaz.

1823 inguruan Pedro A. Añibarrok apailatu zuen *Gramatica Bascongada* delakoan ere ez da ukitzen gure gaia, eta J. B. Archu-ren 1852ko *Bi Mihiren Gramatika* izenekoan ere ez¹³¹. Francisco Ignacio Lardizabalen *Gramatica Vascongada*-n¹³², Inchauspere *Le Verbe Basque*-n¹³³ eta Louis Gézeren *Grammaire Basque*-n¹³⁴ ere ez dugu deus aurkitu. Arturo Campión¹³⁵ ki-z osatutako *izaki* edo *izanki*-z baliatzen da *izan* aditzaren *nor-nori* saileko adizki laguntzaileak azaltzeko; honela dio gramatikari iruindarrak:

“La lengua euskara posee vários adjetivos verbales terminados en KI: EGOKI, JARRAIKI, JAÍKI, IDEKI, IRAZEKI, EBAKI etc., etc. Que estos verbales en KI sean formas derivadas de otras sin KI; que KI, según opina el Príncipe Bonaparte sea un sustantivo como BAITHA al cual le acompaña el sufijo locativo N cuando se usa como sufijo unitivo KIN, ó que por el contrario sea una terminación de los nombres verbales venida muy á menos, hasta el punto de ser casi inusitada en el día, no puede impedirnos de admitir la existencia de una forma IZAKI ó IZANKI, mucho más usitada en la conjugación intransitiva que la forma IZAN conocida puramente, es decir, con independencia de las flexiones intransitivas. TZAI es, por lo tanto, una contracción alterada de ZAKI, como lo son ZAKI de IZAKI y ZAI de ZAKI sin alteración. Por medio de la forma IZAKI explico yo con mucha facilidad un buen número de flexiones que causaban indudable embarazo á los autores, obligándolos á hacer intervenir otros núcleos”¹³⁶.

Azkuek *Euskal-Izkindea*-n¹³⁷ ez du zuzenean ukitzen guk aztergai dugun erabilera, -ki-z laburki mintzo bada ere:

“Ki ataltxo bere’ *ikurkia* ta erakartekoa dai, eta aditz euskoiai irazten da-kioe: *nai* = soy y *nakio* = le soy, *zabilz* = andáis y *KIt* = *si se me fuera*...

Ataltxo onez eraturiko aditzak *egoki* ta *iarraiki* daiz, eta *euki* bere baaldai”¹³⁸.

Aurrerago, «bigarren geigarria» delakoan berak sortutako –horregatik izartxo– **Ioaki* sartzen du, eta honela azaltzen:

“(Creado á imitación de *egoki*). Importante. **Ioakitasun*, importancia, interés. **Ioakitsu*, de mucha importancia. Sin.: *Garransi*”¹³⁹.

130. Bilbon, 1883an kaleratu zuten.

131. Guk Baionan 1868an egindako hirugarren argitarapena erabili dugu.

132. Donostia, 1856, Ignacio Ramon BAROJAREN inprimategian argitaratua.

133. Baiona, 1858.

134. Baiona, 1873.

135. *Gramática de los Cuatro Dialectos Literarios de la Lengua Euskara*, Iruñea, 1884. Guk La Gran Enciclopedia Vascak Bilbon 1977an egindako argitarapena erabili dugu.

136. Ib., 633-634. orr. Hurrengo orrialdeetan ere mintzo da honetaz.

137. Astui-ko Jose-n moldiztegia, Bilbo, 1891, 157.

138. «Ataltxo» hitza gainean marratxoa duen s-z idazten du Azkuek; guk arazo tekniko-engatik x erabili behar izan dugu. Pasartetxo hau honela itzultzen du egileak berak: Tam- bién la partícula *ki* es *reflexiva* y de atracción, y se aglutina á verbos intransitivos: *zabiKIOz* = le andáis, *balitz* = si fuera y *balitzaKIt* = si me fuera... Los verbos formados con esta partí- cula son *egoki* y *iarraiki* (iarraitu), y tal vez también *euki*”.

139. Ib., 370.

Euskera aldizkarian 1923-1925 epean argitara emandako *Morfología Vasca* delakoan¹⁴⁰ -ki atzizkia behin baino gehiagotan aipatzen du Azkuek, baina gehienetan bestelako adierak ditu mintzagai. Hala eta guztiz, aztertzen ari garen erabilera ere ukitzen du hirutan, labur-labur. Batean, moduzko aditzondo-atzizkiez hitz egiten ari delarik goi-nafarrerazko -ki -izaki eta *egoki* besterik ez ditu aipatzen—agian -ik-etik atera izanen dela dio, metatesis:

“Es posible que el modal *ki* sea metátesis de esta *ik*, como lo es también de *izanik* siendo, *egonik* «estando» la *ki* de *izaki* y *egoki* (AN) siendo y estando; como es metátesis del ablativo *ik* la *ki* de los vocablos roncaleses *goraki* desde arriba, *apalki* desde abajo”¹⁴¹.

Bigarreanean, ablatiboaren aldaerez mintzo dela, antzeko zerbait dio:

“En el curiosísimo dialecto roncalés hay también otra variante rara del ablativo, el afijo de *goraki* desde arriba, *apalki* desde abajo. Parece metátesis de *ik*. Existe en AN otra *ki*, afijo adverbial, que también es metátesis del adverbial *ik*: *izaki*, *egoki*,... var. de *izanik*, *egonik* siendo, estando”¹⁴².

Ithurryren *Grammaire Basque. Dialecte Labourdin* delakoan¹⁴³ zuzenean ukitzen da aztertzen ari garen erabilera, oso oso laburki eta, damurik, azalpenik eman gabe den arren. Honela dio autore honek:

“Si aux infinitifs capitaux terminés en *n*, et dont l’infinitif passé est identique à l’infinitif capital, on ajoute *ki*, après avoir retranché le *n* final, on forme un... (sic) Ex.: *Izanki*, *egoki*, *ioaki* (P., 243), *ibilki*, *iakiki*, *emeke ioaki*, *urrun ioaki* (P., 243)”¹⁴⁴.

1922an hizkuntzalari eta euskalari ospe handikoa zen Hugo Schuchardtek *Zur Kenntnis des Baskischen von Sara (Labourd)* izeneko lana eman zuen argitara, alemanez, Berlinen. 1923an Gerhard Bähr-ek berriki euskal akademiaren aldizkarian azaldu den erdarazko itzulpena burutu zuen (*Sobre el Vasculence de Sara (Labort)*)¹⁴⁵. Lan honetan azaltzen den lehen elkarrizketan Lekay izenekoak honela dio:

- “Záin bezálako Briket... hólako partída goórra *jáinkí* eina zéla eta oái orhoitzen-tzaa? Debruén bisáia, ezaún duzú etzála ostálara ni bezalá”¹⁴⁶.

Lanaren egileak ohar batean Azkuek hiztegian dioena aipatzen du, eta Goyhetchek *Lehoina gerlara goaki* darabilela oroitarazten. Berak entzundako -ki bat ere sartzen du, eta erdarazko itzulpenean *ya que* kausazkoa azaltzen

140. Guk La Gran Enciclopedia Vascak 1969an egindako argitarapena (hiru ale) erabili dugu.

141. Lehen alea, 235.

142. Ib., 333.

143. Gramatika honen zatirik handienak *Eskualduna*-n ikusi zuen argia 1894tik 1907ra bitarte, baina joskerari eskaini zatia itzalpean gelditu zen, beranduago J. B. Daranatzek argitaratu zuen arte. Guk Ediciones Vascas-ek 1979an Oiartzunen egindako argitarapena erabili dugu.

144. Ib., 435-436.

145. *Euskera*, 337, 1992-1, 247-292.

146. Ib., 274. Letra etzana gurea da

bada ere, gure irudiz **-ki**-dun adizkia ez da halakotzat hartu behar, hanpatailea baita, argi eta garbi:

“Azkue menciona esta peregrina ampliación del empleo adverbial de *-ki* con estos términos (...). El título de Goyhetché 153 es: *Lehoína gerlara goaki* el león **partiendo** para la guerra. No he visto que Azkue aluda a que *eiki, eki*, ciertamente, probablemente, fácilmente, etc. pertenezca a *egiten* hacer (lit. “de hecho”) (la forma *baiki* que ocurre más abajo es contracción de *bai eiki*). Esta forma hace con frecuencia veces de un verbo definido; así alguien me dijo en cierta ocasión: *zuk eskuara ikasi behar eta jakinki norat etor*, ya que Vd tenía el deseo de aprender el vascuence, sabía Vd a donde venir”¹⁴⁷.

Autore berak gaztelaniaz 1947 arte argia ikusiko ez zuen *Primitiae Linguae Vasconum* izeneko lantxo sakon-zorrotzean¹⁴⁸ ez du aipatzen guk mintzagai dugun erabilera, baina bai «*-ki fonema*»:

“**Ukha.n** ‘habido’. Como en otros idiomas, en vasc. el verbo ‘haber’ procede como verbo auxiliar tanto como en sentido sustancial, de ‘tener’ (comp., p. ej., con el rom. *tenere*).

Para expresar esto último se ha producido una nueva forma por adición del signo de objeto *-ki*, y como en otros verbos se ha fusionado el fonema *-ki* con el radical, y oscurecido para su interpretación: *da.du.cat* ‘es [impersonal] tenido a él por mí’, enfrente de **da.dut*, **daut*, *dut* ‘él es habido por mí’. Para aquél existe el participio *e.du.ki* ‘tenido’; para éste debería corresponder **e.du.n*, pero en su lugar se ha fijado una variante de *e.du.ki*; **e.du.ca.n*, **eukán*, *ukhan*”¹⁴⁹.

1943an argia ikusi zuen *Le Système du Verbe Basque au XVIIe siècle* delakoan¹⁵⁰ behin baino gehiagotan mintzo da René Lafon aztertzen ari garen atzizkiaz¹⁵¹, baina 534. orrialdean bete-betea ukitzen du gure gaia, laburki bada ere. Autore honentzat, gure atzizkiaz sorturikako aditzak gerundioak dira. Honela dio:

“Certains caractères les rapprochent («les radicaux verbaux») des adjectifs. Ils peuvent servir d’attribut aux formes personnelles de quatre verbes d’aspect déterminé, les quatre qui sont employés comme auxiliaires. De plus, les gérondifs en *-ki*, de type *ebilki* «marchant», *ioaki* «allant», *egoki* «restant», rappellent les adverbes tirés d’adjectifs au moyen du suff. *-ki*: *eztiki* «doucement», de *ezi* «doux»”¹⁵².

Pierre Lafittek bere *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*¹⁵³ toki batean baino gehiagotan hitz egiten du **-ki** aditz-atzizkiaz, eta gerundio-balioa, kausazko edo kausazko-azalpenezkoa eta puntukaria ematen dizkio, gehienbat. Honela dio:

“D’autres adverbes participes anciens sont des équivalents des participes français absolus: **izanki**, *étant*, **jakinki**, *sachant*, **ukanki**, *ayant*. Ex. : **gauza**

147. Ib., 288. Letra etzana gurea da.

148. A. IRIGARAYk eman zuen argitara, Salamancan, aipatu urtean.

149. Ib., 57-58. orr.

150. Guk Elkar-ek Zarautzen 1980an egindako argitarapena erabili dugu.

151. Ikus adibidez 392-395. orrialdeak, eta bigarren liburukiko 14-18.

152. 534.

hori jakinki, nola ez duzu ichil-arazi, sachant cela, comment ne lui avez-vous pas imposé silence (litt.: sachamment)”.

Quelques infinitifs radicaux anciens, qui constituent avec *-ki* des adverbos participes de même sens que les précédents.

Ex.: *izaki*, étant; *ibilki*, se promenant; *joaki*, allant; *egoki*, restant¹⁵⁴.

Aurrerago modua adierazten duen *-ki*-rekin identifikatzen du:

“*-ki*, avec, en train de.

Ex.: *zuhurki*, avec sagesse; *orotan ibilki*, en train d’aller partout¹⁵⁵.

Aitzinago frantsesaren orainaldiko partizipioaren antzekoa dela dio:

“Quelques rares verbes très anciens ont un adverbe participe en *-ki* formé sur l’infinitif radical; cet adverbe présent l’action en plein déroulement, un peu comme le participe présent français: *ibilki*, en train de marcher; *erorki*, en train de tomber; *ethorki*, en train d’arriver; *egoki*, en permanence, en train de rester; *joaki*, en train d’aller; *eramaki*, en train d’enlever; *iragaki*, en train de traverser; *jakiki*, en connaissance; *izaki*, en état de, en possession de.

Ex.: Aita saindua Erroman *egoki* da, le Saint-Père habite à Rome, hura *ethorki* eta gu *joaki*, doi-doia ikusi dugu elgar, lui arrivant et nous partant, c’est à peine si nous nous sommes vus; *bazinakite haurrak nun ditutzuen ibilki*, si vous saviez où vont se promener vos enfants (litt.: si vous saviez où vous avez les enfants en train d’aller).

Remarque.- On aura noté que le suffixe *-ki* a été substitué à la lettre *n* finale de *joan*, *izan*, *egon*, *ereman* et *iragan*, où elle n’est, en réalité, qu’une désinence de participe. On verra d’ailleurs qu’il existe des formes construites sur le participe, comme *izanki*, *eremanki*, *jakinki*¹⁵⁶.

Aurreraxego batzuetan ekintza garatzen ari delarik aurkezteko ibiltzen dela dio, eta beste batzuetan modu-aditzondoak sortzeko:

“Avec le suffixe *-ki*:

a) pour présenter l’action en plein déroulement, avec certains vieux verbes comme *izanki*, se trouvant ou ayant; *eremanki*, enlevant; *jakinki*, sachant; *joanki*, partant ou emportant; *iraganki*, traversant.

b) pour faire de simples adverbos de manière avec des participes pris adjectivement.

Ex. : *itsutuki*, aveuglement; *segituki*, assidûment; *deliberatuki*, délibérément; *ohartuki*, consciemment; *atsulutuki*, absolument; *agertuki*, ouvertement¹⁵⁷.

Beste batzuetan esakera bereziak sorrarazten ditu *-ki* atzizkiak:

“11° dans l’expression *egoki egon*, rester sur place.

Ex.: *egoki zagon*, il ne bougeait pas¹⁵⁸.

“4° «se promener», dans l’expression *ibilki ibili*.

Ex. : *bazabiltza ibilki?* vous vous promenez?¹⁵⁹.

153. 1944an karrikaratu zuen; 1962an, 1978an eta 1987an berriz ikusi du argia. Guk azken urte honetan Elkar-ek Zarautzen egindako edizioa ibili dugu.

154. Ib., 156.

155. Ib., 172.

156. Ib., 210-211.

157. Ib., 232.

158. Ib., 253.

159. Ib., 258.

Lafittek dioenez, aditz trinkoen ordain ere izan daitezke **-ki-dun** adizkiak:

“b) **Substituts des formes verbales significatives:**

1° Au lieu de l’infinitif en *-tzen*, ou *-ten*, on rencontre:

- quelques rares adverbes-participes en *-ki*.

Ex. : *ibilki da, il se promène; egoki zen, il restait; joaki balitz, s’il s’en allait.* (On dit d’ailleurs très bien *ibiltzen da, egoiten zen, johan balitz*)¹⁶⁰.

Berdin aditz iragankorrekin:

“Ex.: *nork daki nora duen eramaki, qui sait où l’emport?*”¹⁶¹.

Geroaldiaren erabilera sekundarioez ari delarik, aditz laguntzailea ezabatu den perpausa ematen du, bigarren osagaitako, lehenean **-ki-dun** forma bat sartzen duela. Zalantzarik gabe **-ki** hanpatzailearen aurrean gaude oraingoa (ikus beherago):

“5° Sous forme elliptique négative, il exprime le regret.

Ex.: *hoinbertze uso izaki, eta armarik ez izanen! tant de palombes, et dire que je n’ai pas de fusil* (litt. : *et je n’aurai pas de fusil*)¹⁶².

Beste zenbaitetan kausazkotako edo kausa-azalpenezkotako har dezakegu **-ki** aditz-atzizkia, **eta-k** lagundurik dagoenean bederen:

“...*profetek erranak oro ethorkizun izaki-eta, comme tout ce qu’ont dit les prophètes se réalisera*”¹⁶³.

“Ex.: *elhurra izaki-eta, parce qu’il neigeait; (...)*”¹⁶⁴.

Bukatzeko, Lafittek iraunkortasun-adiera ere ematen dio, baina gure irudiz aditz trinko baten balioa du aipatzen duen adibidean:

“Le suffixe *-ki* lui donne (aditzari) plutôt le sens d’un adverbe-participe à sens DURATIF: *ibilki dira, ils sont en train de se promener*”¹⁶⁵.

Manuel Lekuonak¹⁶⁶ Euskaltzaindiak Azkueren hiztegia berrargitaratu behar zela eta, ukitu bat egin nahi izan zion lekeitiarraren lanari, karrikara atera aitzinean. Oiartzuarraren arabera, **-ki-dun** formak ez dira gerundiotzat hartu behar, infinitibotzat baizik:

“Urte asko-samarrez onuztik, onelako esaunda zenbait, «lepoan *ekarki*» (*trayéndolo en hombros esan nayan*), eta «aren billa *ibilki*» (*andando en busca de él*), ta oien antzeko beste esaundak, idatzita ikusten oituak gaude. Ots, *ekarki* = *trayendo*; *ibilki* = *andando*... gerundio bezela, alegia; «al-izate aundia *izaki*» = (*teniendo gran poder*); *izaki, izan*’en gerundio bezela (*izan* infinitivo, *izaki* gerundio).

Noiztandik dator gure artean, *izaki* ori *izan*’en gerundio-ordez erabiltzeko oitura? Nik ez dakit. Bañan bai bait-liteke, oitura onen zuztarra gure

160. Ib., 339.

161. Ib., 341.

162. Ib., 375.

163. Ib., 210.

164. Ib., 453.

165. Ib., 472.

166. -Ki, gerundio-atzizki?”, *Euskera*, 1956, 145-148.

Azkue zanaren Iztegian egotea. Orregatik aipatu nai izan det arazo au, Azkue'ren Iztegia berritu-bearrez gabiltzan ereti ta egokitasun ontan¹⁶⁷.

Autore honen ustetan, partizipio burutua ibiltzea eta **-ki-dun** forma ibiltzea elkarren pareko dira, Oiartzunen behintzat. Honela dio:

“Oyartzun'en *izaki* ta *ibilki* ta *egoki* erabiltzen ditugu –itzetik ortzera erabili, gañera– bañan ez gerundio bezela, infinitivo bezela baizik. *Izaki* erabiltzen degu *izan* bezela-bezelaxe; eta berdin *ibilki* ta *egoki* ere, *ibilli* ta *egon* bezelaxe. Eta berdin baita *ariki*, *etorki*, *ekarki*, *eramaki*, *erabilki*, *biziki*, ta baita *eukiki* ere... (...). Ez det esango, ordea, **-ki-dun** au, bestea bezain ugari erabiltzen degunik; bañan au bai, gipuzkoeraz **-ki-gabeak** duan esan-nai ber-bera ematen diogula guk, erabiltzen degun guztietan. Adibidez: «Aurrian *izaki*, ta ekusten ez» = «aurrean *izan* eta ikusten ez» (...)¹⁶⁸.

Guztiarekin ere, orrialde bereko oinohar batean **-ki-ri** aurkari-kutsua hartzen diola dio, «*pero-kutsu* pizarren bat, *baña-kutsu* apurren bat», eta alderdi honetatik diferentzia zerbait ikusten du **-ki-dun** adizkien eta partizipio hutsaren –«infinitivoa» Lekuonaren hitzetan– artean. Gure irudiz, aurkaritasun hori ematen dituen adibideetan beti azaltzen den kontrajarpenari zor zaio, eta egia erran, anitz aldiz **-ki** eta elkarren aukarkotzat jo daitezkeen bi ekintzen arteko kontrajarpena batera azaltzen zaizkigu, eta hau izaten da informatzaileei zer jakin nahi dugun aditzera emateko biderik aproposena, baina bestalde garbi dago kontrajartze hori ez dela derrigorrezkoa, beheitiago ikusiko dugun bezala (cf. “**zu izaki** niri deika aritu dena!”).

Luis Villasantek *Sintaxis de la Oración Simple* lanean gai hau oso arinki baizik ez du aztertzen, eta gehienbat Azkuek hiztegian errandakoa errepikatzera mugatzen da. Honela dio:

“Azkue al tratar del sufijo **-ki** dice: «Aplicase a infinitivos formando cierto gerundio». Ejemplos: *Izaki* «habiendo sido». *Ibilki* «habiendo andado». *Egoki* «habiendo estado». Según el mismo Azkue, se usa este tipo de gerundio en AN BN L G, pero hay que decir que fuera de ciertas zonas es de poco empleo aun en los citados dialectos. En la tradición literaria tampoco ha tenido arraigo¹⁶⁹.”

Ez dugu uste, Nafarroari eta nafarrerari dagokionez bederen, Villasante zuzen dagoenik, eta literatur tradizioaz dioena garbi dago ñabartu behar dela, **-ki-k** beste forma batzuek bezainbateko arrakastarik izan ez badu ere maiz azaltzen baita, ikusteko abagunea izan dugunez.

Koldo Mitxelenak Villasanteri egiten dizkion oinohar ugarietako batean, **-ki** aditz-atzizkiaren gorago ikusi dugun goi-nafartasuna nabarmentzeaz landara, literaturan sartu duena Orixe izan dela dio, Azkuek *izaki* adibidez ‘habiendo sido’ itzultzean oker dagoela salatu bidenabar:

“Su principal introductor en la literatura es Orixe. En todo caso, Azkue está en un error si cree que *izaki*, por ejemplo, significa ‘habiendo sido’¹⁷⁰.”

167. Ib., 145.

168. Ib., 146.

169. Editorial Franciscana Aránzazu, Oñati, 1980, 205-206. Letra beltza gurea da.

170. Ib., 205.

Hemen ikusten denez, Mitxelenak Azkuek hiztegian errandakoa zuen gogoan, ez *Morfología*-n errandakoa, honetan gorago ikusi dugun gisa *izaki*, *egoki* «siendo», «estando» itzultzen baitu. Hizkuntzalari ospetsua izan zena-
ren arabera, Erreterian *-kiki* aldaera errepikatua ere ibiltzen da: *izakiki*, *eo-
kiki*... *-Ki*-ren bitartez moldatu esaldiak izen-esaldiak direla dio, baina ez
edozein izen-esaldi *–ez ni eskailerak igotzen eta hura jeixten*-en tankerakoak–,
tartekatze bat, gogoeta bat, iruzkin bat... adierazten dutenak baizik. Herriki-
de zuen Xenpelarren hurrengo bertso hau:

“Neskatxak ere ez dirate nai aterik iriki; / badute milla aitzaki, / gaztia-
guak *izaki*, / estimaziyo txarra nola dan / mutil zarrak daki”¹⁷¹.

Honela iraultzen du gaztelaniara:

“Tampoco las muchachas me quieren abrir la puerta. Me ponen (tienen)
mil pretextos: claro, los hay más jóvenes; no les faltan sin duda otros más
jóvenes, etc”¹⁷².

Xenpelarren *izaki* hau gure irudiz kausa-azalpenezkotzat jo daiteke (ikus
Lafittek dioena), eta «dituzte eta»-z ordezkia liteke, errimak *-ki* erabiltzera
behartuko ez bagintu. Mitxelenak aditz jokatua ez denez gero denboragabe-
kotzat har daitekeela dio, baina hau agian ñabartu behar genuke, atzizki hori
beherago ikusiko den moldean orainaldi nahiz iraganaldiko trinko baten or-
dezko hanpatzailea delako. Ez dugu uste Mitxelenak berak aipatzen duen
hurrengo adibide hau *–erabat arrunta nafarreraz–* oso intenporaltzat eman
dezakegunik:

“Batzuek emateute ezer ez tutelata ta izaki, ta bestiak ezer izaki ez ta azaltzen”.

Bestalde, Iparraldeko egungo erabileran gerundio-balioa duela dio, agian
Lafitteri jarraikiz, baina ez dugu uste adibidetako ematen duen perpausa adi-
bide ona denik, gure ustean gerundioairea ez, baizik hanpatzailea baita:

“Zer jende-multzoak ez dituzte metatu Rusoek...eta Nasser denen artetik
ibilki”.

Ematen dituen Hiribarrenen bi etsenpluetako bigarrena ere ez dugu uste
gerundioairetako hartu behar den, hizkuntzalari erreteriarrek *izanik*-ez or-
dezka daitekeela erraten badu ere:

“Guti herric izaki holako dohainic / Ikusteko haurretan, Indiac eguinic”.

Itzuli ere Mitxelenak berak honela itzultzen baitu:

“pues (griego *gár*) pocos pueblos tienen tal suerte...”.

Hortaz, ez dirudi ondorio moduan dioena erabat ontzat hartu behar
denik, ez behintzat nafarreraz:

“En todo caso y en cualquier parte, *izaki* podrá ser más o menos ‘siendo’
pero no ‘habiendo sido’: es forma de *infectum*, no de *perfectum*”¹⁷³.

171. Ib., Letra beltza gurea da.

172. Ib., Letra beltza gurea da.

173. Ib., 206.

Izan ere, Mitxelenaren beraren euskarazko idazkietan ikus daitekeen bezala, **-ki-dun** adizkiak ez dira, gutiz gehienetan, gerundiotzat hartzen ahal. Hona hemen adibide batzuk:

- “Regoyos’ez gero Belgicako artista olerkarietara adiskidetu ginen eta orduan behar genituen gizonak Holandan **egoki**”¹⁷⁴.

“Pelotariak berriz, Miamin erositako atorra loratu eta guzti, hemezortzi urtetik hemezortzi urtera agertzen dira herrian... Beste eginkizunik ez **izaki eta** (= ez dutenez (gero)), hor aritzen dira atso-agurentzako erruki-etxeak eta umeentzako eskolak egiten”¹⁷⁵.

“Igo hadi, ttiki!, zioen arbolak, eta adarrak makurtu-ahala makurtzen zitu; haurra ordea ttikiegia **izaki**”¹⁷⁶.

“Nork bere gustua du, izan ere, eta zurea eta nerea ez **izaki** nonbait berdinak”¹⁷⁷.

“Kaletarrak ere euskaldun gara, batzuek behintzat, eta zori gaitzoz edo zori onez, kaletarrok gero eta gehiago gailentzen ari. Eta kaletarren burubihotzak ez **izaki** beti lehengo euskaldunenak bezain garbi”¹⁷⁸.

Tartean badu, halaz ere, gerundiotik hurbil dagoen eta guk dudazkotzat joko genukeen adibideren bat:

“Bizkaitarrek-diotenez, aditza bera denean galdegai, soila **izaki** aditza, *joan noa, etorri nator, eroan daroa* eta horien araberakoak erabiltzen omen dira”¹⁷⁹.

“Errainu artean bizi zen amesgile hark, egiazko poetaren dohaia **izaki** hori, begi argiangoak baitzituen lurreko gauzetarako jakintza-gizonak baino”¹⁸⁰.

Bigarren lekukotasun honetako **izaki** hori, halaz guztiz, hanpatutako ere jo daiteke, eta horrela eginez gero ontzat hartu behar genuke. Nolanahi ere, eta nafarreraz behintzat hanpatzailea denean eskuarki gerundioaren kidea ez den arren, egia da diosaltzat ibiltzen dugunean erdaraz gerundioa ibiliko genukeela, egoera berean:

- Zer, ariki? (=zer, ari zarete?) = ¿Qué, trabajando? (=¿se trabaja?).

- Zer, ibilki? (zer, bazabiltzate?) = ¿Qué, andando / paseando?

- Zer, egoki? (zer, bazaudete?; zer, egonean?; deskantsuan zaudete?) = ¿Qué, descansando?

Egia da, halaber, Legasako eta Olagueko gure informatzaileetako batzuek, guk itzultzeko eskatu gabe, beren gisa, *izaki eta* eta *jakinki* «siendo» eta «sabiendo» itzuli dizkigutela, eta Odieta, Ultzama eta Basaburu Nagusiko herri batzuetan erabiltzen den *jakinki* erdarazko gerundiotik oso hurbil

174. *Euskal idazlan guztiak I*, (EIG aurrerantzean) Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 111. Lekukotasun hauetako guztietako letra beltza gurea da.

175. *Ib.*, 132.

176. *EIG II*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 104.

177. *Ib.*, 109.

178. *EIG IV*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 26.

179. *EIG VI*, Euskal Editoreen Elkarte, Zarautz, 1988, 160.

180. *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Patxi ALTUNAK paratu argitarapena, Mensajero, Bilbo, 1972, 176.

dagoela; *jakinki* hori alde batetik *jakinik*-en kidea izan badaiteke ere¹⁸¹ bestetik *jakinki* hanpatzailearen balioa du. Ikus hurrengo adibideak:

- “Ho(r)i nola jua(n) ote (d)ok autobuse(a)n *jakinki* nik Iruña jua(n) behar nuela ta?” (Itsaso).

- “Hik zertako da(ra)mak nabala, *jakinki* nik bada(ra)matela!” (Odieta-Latasa).

- “Nola ez zizte haren ikustera joan, *jakinki* (ta) han bizi zela?” (Luzaide).

Mezkirizko informarzaileetako batek, bestalde, guk proposatutako *izaki* eta *ibilki*-ren orde(z), *izanez* eta *ibiliz* darabil, perpaus honetan:

- “Nola ez haiz atratzen paseoa ematera o buelta ematera, *izenez* osasun ona, *ibiliz* ongi?”.

Txillardegik ez du ukitzen gai hau ez *Oinarrri bila*-n¹⁸² ez *Euskal Gramatika*-n¹⁸³; Patxi **Goenaga** ere ez da gai honetaz mintzo *Gramatika bideetan* delakoan¹⁸⁴, ez eta Adolfo **Arejita** ere *Euskal Joskera* izeneko gramatikan¹⁸⁵. Pello **Salaburuk** eta Xabier **Kintanak** ere ez diote deus gai honetaz *Euskara hobean hobe* deritzan liburuxkan¹⁸⁶.

Euskaltzaindiak zerbait erraten du gai honen inguruan, baina ez du bati sakontzen, eta oso gaingiroki baizik ez du aztertzen. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I* delakoan¹⁸⁷ hau besterik ez dio, oker ez bagaude:

“Aditz erroari ere erasten zaio (-ki) zenbaitetan, **nola** esanahia emanaz: «ibilki», «joaki», «izaki»...”.

Beranduagoko *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* delakoan¹⁸⁸ lehen gramatika horretako aipua errepikatzen mugatzen da akademia, laburra zena laburtuz, eta aldatu beharrekoa aldatzen ez duela:

“Honela sortzen ditugu (-ki atzizkiak baliaturik) etengabe aditzondo berriak eta hain erabilera zabalekoa denez gero, sarritan berez modua adierazten duten adizlagunei ere erantzen zaie: *egiaz(ki) mintzo, larri(ki) zauritu*, e.a. Aditz erroak ere eramaten ahal du atzizki hau: *ibilki, izaki, e. a.*”.

Aipatu bi gramatika horien artekoa den *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-II*-n -ki-ren erabilera puntukariaz hitz egiten du akademia, eta zenbait euskalkitan *egoki naiz*-en tankerako adizkiak ibiltzen direla dio. Honela mintzo da:

“Halaz guztiz, ohar bat egin behar dugu hemen: euskalki batzutan aditz trinkoen orainaldi edo iraganaldiko aspektu puntukaria adierazteko, forma

181. Bi forma hauen arteko desberdintasunetako bat zera da, *jakinki*-k eta laguntzaile moduan har dezakeen bitartean, *jakinik* beti bakarrik azalduko zaigula, alegia, ez dugula –testuinguru honetan behinik behin– **jakinik eta*-ren tankerakorik aurkituko.

182. Donostia, 1977.

183. Ediciones Vascas, Bilbo, 1978.

184. Erein, Zarautz, 1980, 2. argitarapena.

185. Leopoldo ZUGAZAGA argitaratzailea, Bilbo, 1982.

186. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1984, 488.

187. Iruñea, 1985, 488.

188. Mungia, 1993, 458.

trinkoaren ordez beste forma konposatu berezia erabiltzen dute askotan. Jokatu nahi den aditz trinkoaren aditz oinari '-ki' morfema erasten diote. Gero aditz horren iragangaiztasun edo iragankortasunaren arauera, **izan** edo ***edun** laguntzaileak jokatzen dira. Hauek adierazten dizkigute aditzaren tempusa eta pertsonak. Halere, ez dira aditz trinko guztiak horrela erabiltzen. Hona hemen erabiltzen diren horietako batzu:

- a. Ibili: **ibilki naiz** / **ibilki nintzen**
- b. egon: **egoki naiz** / **egoki nintzen**
- c. joan: **joaki naiz** / **joaki nintzen**
- d. heldu: **helduki naiz** / **helduki nintzen**
- e. eraman: **eramaki dut** / **eramaki nuen**
- f. ekarri: **ekarki dut** / **ekarki nuen**
- g. erabili: **e(ra)bilki dut** / **e(ra)bilki nuen**¹⁸⁹.

Gu lan honetan honelako formek Nafarroan zenbaterainoko hedadura duten ikusten ahaleginduko gara.

4. -KI ADITZ-ATZIZKIAREN ERABILERA NAFARROAN

4.1. -Ki hartzen duten aditzak

Atzizki hau onartzen duten aditzak forma trinkoak dituztenak edo trinkotzat har daitezkeenak dira. Honelakoak ditugu besteak beste:

- a. Eduki > eduki(ki) (edukio)
- b. Egon > egoki (egokiki, egoiki)
- c. Ekarri > ekarki (ekarkio)
- d. Eraman > eramaki (eramakio, eramanki)
- e. Etorri > etorki (etorkio)
- f. Heldu > helduki¹⁹⁰ (heldukio)
- g. Iragan > iraganki (Lafittek)
- h. Ibili > ibilki (ibilki)
- i. Ikusi > ikusiki (Orixek)
- j. Izan > izaki (izanki, izakio, izakiki)
- k. Jakin > jakinki (jakinkio, jakiki)
- l. Jin > jinki
- ll. Joan > joaki (joaki, faki, gaki, goaki, joanki, joakio)
- m. Ukan > ukanki¹⁹¹.

189. Bilbo, 1987, 149-150.

190. Heldu da = (ba) dator; beraz, nolabaiteko aditz trinkoa dela erranenez, aspektuari dagokionez.

191. Luzaiden *nor* nahiz *nor-nork* gisa ibiltzen dute. Cf. hegoaldeko goi-nafarreraz idatzirik dagoen Ororbian predikatutako sermoiko *iken* (**ikan*-etik, bokal armoniaz. Euskaraz hitz hasierako *u-* / *i-* txandakatzea ezaguna da) *nor* edo *nor-nork* sailetako aditza: "Garaturic demonioa tentaciontan acometitucio berçabatequi; lendabissicoa **iquence** gulequi eta biguerna soberbiequi (...) eta pretenditu baleçaque cureçea gaiçartaric, milagros erremedioric inbague, **iquenen liçequ** tentaçea Jan Goicoa (...). Beñe soberbies beteric, adoracezanagatic, ofrecitucio Mundu gucie christo Gure Erredentoreari, berea **iquen** bague (...) ece becatu iten zuten aldiero, egosten çigen disquio aniz maldicio deabrueren contra, eta erraten dutela *Malditoo iquendadiela deabru* (...). Nola honrratu beartu proximo lagunec? Aite, eta Ama

Baina badira beste aditz batzuk historikoki forma trinkoak izan dituzten arren, gaurregun Nafarroan bederen alerik ez dutenak, eta honen ondorioz edo -ki atzizki hori onartzen ez dutenak. Hauen artean honako hauek ditugu:

- a. egin > *egiki
- b. esan/erran > *esaki/*erraki
- c. ezagutu > *ezagutuki
- d. entzun > *entzuki
- e. eman > *emaki

Beste alde, forma trinkorik ez badute ere ondoko hiru hauek trinkotako har genitzake, -ki aditz-atzizkia dela eta, izan ere oso aditz bereziak baitira:

- a. Ari > ariki (arikio, ari izanki)
- b. Bizi > biziki (bizi izanki)
- c. Nahi > nahikio (behin bakarrik bildua, Leitzan)

Beste batzuek, aldiz, ez dute onartzen:

- a. Behar > *beharki, *behar izaki (?)
- b. Maite > *maiteki
- c. Uste > *usteki

Honelako formarik ez gure hizkera bizian aurkitzen dugu, ez idatzizko testuetan egin dugun hustuketan atzeman dugu (salbuespena Patxi Zabaletaren *behar izaki* –ikus gorago– da). Beraz, forma trinkoak dituzten aditzen aditzoin batzuei (eta aditz berezizat jo ditugun beste batzuei) -ki atzizki hori zergatik eransten zaien edo zergatik ez azaltzeko arrazoiak ez daude garbi.

Formaren aldetik badirudi ADITZOINA + -KI dugula. Arazoa, dena dela, korapilotsua da, zeren -n-z amaitzen diren aditzek ez digute argitzen oinarritako partizipioa duten ala aditzoina duten, eta argibideren bat eman liezaguketenen artean ez dago batasun gehiegirik; alde batetik *ibilki*, *etorki* eta *ekarki* ditugu, eta bestetik berriz, *helduki* eta *ikusiki*. Azken hauetatik lehenengoak izaera berezia duela (puntukari erabiltzen denez gero, badirudi bukaerako -du hori aspektu bukatua adierazten duen morfema izan arren ez dela halakotzat hartzen) eta *ikusiki* forma ahozko erabilera arruntean agertzen ez dela eta arakatu ditugun testu idatzietan behin bakarrik aurkitu dugula (Orixerengan) kontutan hartuz, aditzoinaren alde makurtzen gara.

4.2. -Ki-ren erabilera hanpatzailea

Garrantzizkoa deritzogu -ki aditz-atzizkiaren erabilera nolakoa den azaldu baino lehen euskal perpausei eman dakiekeen ñabardura berezi batez mintzatzeari, hementxe baitago, gure ustez, arazoaren gakoa.

lendabissico proximoac **iquenic**, honrracen estuenac? (...). Bada ezparimeda ona, ez Jangoicoandaco, eta ez proximo lagunendaco, Aite eta Amac, honrraçon eta errespetaçen estuena, norendaco **iquenen da** ona? (...) eta au eifñ claro egonic ere, hume gueistoc, hume desobedientec, errespeto baguecoec, **iqueten dute** atrebimentue equençeço gure atsoegui (...)", J. M. SATRUSTEGI, *Euskal Testu Zaharrak*, 91-111. Letra beltza gurea da.

4.2.1. -Perpausen hanpadura eta aditz laguntzailearen ezabaketa

Gauza ezaguna da, euskal perpausari dagokienez, zenbait kasutan aditz laguntzailea ezabatzen dela. Besteak beste, perpaus elkartuetan gertatzen den aditz laguntzailearen ezabaketa aipa genezake¹⁹², eta honek, komunztadura dela eta, sortzen dizkigun arazoak:

- 1- Pello / etorri eta joan da
- 2- Pello / egin eta joan da
- 3- Pellok egin / eta joan da

Ezaguna da, baita ere, haur-hizkeran perpausak laguntzailerik gabe emateko dagoen joera:

- 4- Gero emango nik
- 5- Bihar egingo nik
- 6- Zeinek kantatzen zuri?
- 7- Zer garbitu zuk?

Edo hainbat galderatan aditz laguntzailea ezabatzeko izaten dena:

- 8- Entenditzen?
- 9- Ikusten?

Adibide desberdin hauek direla eta, ez gara xehetasun gehiagotan sartuko. Adierazi nahi dugun gauza bakarra zera da, aditz laguntzailearen ezabaketa hainbat kasu desberdinetan burutzen dela.

Baina bada, dena den, guri bereziki interesatzen zaigun beste aditz-ezabaketa mota bat. Izan ere, perpaus batzuei indar berezia eman nahi diegunean, intonazioaz gain erabiltzen dugun errekurtsioetako bat aditz laguntzailearen ezabaketa da. Perpausari honelako ñabardura eta enfasi berezia ematen diegunean **hanpatu** egiten ditugula erranen dugu –ohar bedi irakurlea galdegaia eta mintzagaiaren hanpadurarekin zer ikusi handirik ez duela eskuartean dugun honek–.

Garbienik adibide batzuk ezarriko ikusiko dugu. Para ditzagun, errate baterako, ondoko hauek:

- 10- Eginahalak egin arren ezin zuen harri hura jaso
- 11- Hura zulo berean erortzen da beti
- 12- Ez zuen ur-zurrumbilo hartan amuarrainik harrapatzen
- 13- Ez du sekulan behar bezala ikasten
- 14- Zuk deitzen didazu egunero
- 15- Nik egin behar dut lan hori
- 16- Hura han erori zen
- 17- Behin izango duk gogoak emanda bezala ibiltzeko aukera, eta zera, kexa eta purrustia besterik ez

Hauei arestian aipatutako indar berezi hori eman nahi badiegu, hau da, **hanpatu** nahi baditugu, honela erraten ditugu:

192. Ikus Patxi SALABERRIren “Aditz laguntzailearen ezabaketa eta hizkuntzaren irakas-kuntza”, *Zutabe*, 22, 1990, 93-98, eta Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-IV*, Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea, Morentin, 1994, 62-71.

- 18- Eginahalak egin arren ezin harri hura jaso!
- 19- Hura zulo berean erortzen beti!
- 20- Ur-zurrumbilo hartan ez amuarrainik harrapatzen!
- 21- Sekulan ez behar bezala ikasten!
- 22- Zuk deitzen egunero!
- 23- Nik egin behar lan hori!
- 24- Hura han erori!
- 25- "Behin izango gogoak emanda bezala ibiltzeko aukera, eta zera, kexa eta purrustia besterik ez"¹⁹³.

Adibide hauetan ikus daitekeenez, aditz laguntzailearen ezabaketaz landa harridura-marka horiek dira nolabait hanpaduraren adierazgarri. Gainera, aditz laguntzailearen pertsonak eta aldiak ez dute inolako garrantzirik perpausa era horretan hanpatzeko eta ñabardura berezi hori emateko, laguntzaile osoa ezabatzen baita, hain zuzen ere perpausak indar hori har dezan. Perpausaren hanpaduraren ondorioz, aditzari gagozkiola, aditz nagusia bakarra gordetzen da, soil-soilik aspektuaren marka jasotzen delarik.

Gai honetaz ari garelarik erran beharra dago aspektua [- burutua] eta [+ burutua] duten perpausak direla maizenik erabiltzen direnak, eta [+ geroa]-rekin eraikitzen direnak, berriz, ez direla usuegiak, besteen aldean. Dena dela, erabilera kontua besterik ez da.

4.2.2. -KI: aditz-atzizkia perpaus hanpatuetan

Orain arte eman ditugun adibideak forma trinkorik ez duten aditzenak izan dira, baina har dezagun orain forma trinkoa duen aditz bat, *egon* erraterako, eta jar ditzagun adibide batzuk azal daitezkeen aspektu guztiak agerian dituztenak:

- 26- Zulo hartan sartua egoten zen beti azeria
- 27- Zulo hartan sartua egon zen azeria ehiztariak inguruan ibili ziren bitartean
- 28- Seguruenik zulo hartan sartua egongo da
- 29- Zulo hartan sartua zegoen azeria

Orain arte erran dugunari jarraikiz, lehenengo hiru perpausak hanpatu nahi baditugu, gorago egin dugun bezala, era honetara emanen ditugu:

- 30- Zulo hartan sartua egoten beti azeria!
- 31- Zulo hartan sartua egon azeria (ehiztariak inguruan ibili ziren bitartean)!
- 32- Seguruenik zulo hartan sartua egongo!

Goiko adibideetan bezala, intonazio berezia emateaz gainera, aditz laguntzailea ezabatu dugu. Baina zer agitzen da 29-an eman dugun adibidearekin? Bestela erran, zer gertatzen da puntukaritasuna markatzen duen *zegoen* aditz trinkoarekin? Nola hanpa dezakegu perpaus hori aditz laguntzailerik ez badu? Jarri dugun adibideari ñabardura eta indar hori ematekotan modu honetan egingen dugu:

- 33- Zulo hartan sartua **egoki** azeria!

193. *Behi euskaldun...*, 135.

Jar ditzagun beste adibide batzuk, oraingoan *izan* aditza erabiliz, aipatutako aspektuaren tasuna kontutan hartuz:

- 34- Donostian izan zara gaur goizean
- 35- Goxokiak okindegietan izaten ziren
- 36- Pello eta Miren festan izanen dira
- 37- Galtzerdiak kajoiaren barnean dira

Perpauk hauek hanpatu nahi izanez gero, aurreko adibideetan jokatu dugun bezalaxe egin behar dugu:

- 38- Donostian izan (zu) gaur goizean!
- 39- Goxokiak okindegietan izaten!
- 40- Pello eta Miren festan izanen!
- 41- Galtzerdiak kajoiaren barnean **izaki!**

Ikus daitekeen moduan, hanpadura-mota honek, formalki, aditz nagusiko aspektua bakarrik altxatzen du adierazgarri gisa, gainerako guztia –pertsona eta aldia adierazten digun aditz laguntzailea– ezabatzen delarik. Trinkoetan, ordea, puntukaritasuna markatzeko modua aditzoinari **-ki** atzizkia eranstea da.

Beraz, perpauk bati aipatutako modu horretara hanpatuz indar berezia eman nahi diogunean aditz trinkoa bada *izaki, egoki, jakinki, joaki...* bezalako formak erabiliko ditugu.

Hanpadura-mailari dagokionez, maila ber-berean daude ondoko 43 eta 45 perpauk, nahiz bata aditz perifrastikoa izan eta besteak trinkoa erabili:

- 42- Hura mendian erori da
- 43- Hura mendian erori!
- 44- Hura mendian dago
- 45- Hura mendian **egoki!**

Egoki horrek, beraz, mota honetako perpauk hanpatueta momentukotasuna, puntukaritasuna azaltzen duela garbi asko dago. Hortaz, **-KI** aditz-atzizkia erabiltzeko beharrezkoak diren bi baldintzak hauek dira:

- a- perpausa hanpatua izatea [+ hanpat.]
- b- puntukaritasuna adieraztea [+ puntuk.]

Eguneroko hizkera bizian, hortaz, aditz-atzizki hau erabiltzen den lekuetan honelako adibideak aurkitzea ez da arraroa:

- 46-a- Zu zara niri deika aritu dena
- b- Zu **izaki** niri deika aritu dena!
- 47-a- Hura da
- b- Hura **izaki!**
- 48-a- Pello etxean zegoen gu joan ginenean
- b- Pello etxean **egoki** gu joan ginenean!
- 49-a- Kamioia ezker-ezkerretik heldu zen (= zetorren)
- b- Kamioia ezker-ezkerretik **helduki!**
- 50-a- Nik zertarako hartu behar dut argazki-kamara zuk bideoa daramazu eta?
- b- Nik zertarako hartu behar dut argazki-kamara zuk bideoa **eramaki** eta?
- 51-a- Nola ez duzu azterketa gainditu, dena ederki zenekien eta?

- b- Nola ez duzu azterketa gainditu, dena ederki **jakinki** eta?
52-a- Pellok zergatik utzi du lasterketa orain arte ederki zebilen eta?
b- Pellok zergatik utzi du lasterketa orain arte ederki **ibilki** eta?
53-a- Hara hoa eta zer kostatzen zaik hori eramatea!
b- Hara **joaki** eta zer kostatzen zaik hori eramatea!
54-a- Kotxean droga zekarren Pellok
b- Kotxean droga **ekarki** Pellok!
55- "Ura etxean **ukanki**-ta, zoin gogotik ezarriko ere nuen nik, xoko batean, taulaz bederen hetsirik, zurrusta bat!"¹⁹⁴
56- "Holakoak sinisteko ordea, kasi kasik budista bihurtu behar batek! Eta **izaki** hortarako fedea duenik ere ! (...)"¹⁹⁵

Berdin perpausak ezezkoak direnean:

- 57-a- Ez da zuzena
b- Ez **izaki** zuzena!
58-a- Ez da inor zuen artean harri hori jasotzeko gai denik
b- Ez **izaki** inor zuen artean harri hori jasotzeko gai denik!
59-a- Ez ditu sakelan kotxearen giltzak
b- Ez **izaki** sakelan kotxearen giltzak!
60-a- Ez zuen indarrrik
b- Ez **izaki** indarrrik!
61- "Daukat ere irakaspén xume horiek gutiz gehienentzat aski diren, lur lanetik bizi behar direlakotz; beti bera lan hura eta hartaz bertzerik ez **ukanki**"¹⁹⁶
62- "Horrelako horma-burruntzi tenteak ere ez **izaki** (...) andrazkoen artearirik ihes egiterik"¹⁹⁷

Badira, bestalde, aspektuaren aldetik arunt ezaugarri bereziak dituzten aditzak. Hor daude, erraterako, itxuraz hain desberdinak diren *ari da, nahi du, behar du, bizi da, maite du*, e.a. Hauen artean ez dute denek **-ki** aditz atzizkia hartzen, ordea.

Literatura idatzian *biziki*-ren adibide bakar berantiarra (Patxi Zabaletarena; ikus gorago) aurkitu dugu, eta forma hau bizirik badago ere, ez da *ariki* bezain hedatua:

- 63- Jakina, zu ere lan horretan **ariki**!
64- Nola pintatuko dut, bada, pailazo bat, zu egiten **ariki** eta!
65- Ezkonduko ez dira bada?, aspalditik elkarrekin **biziki** eta!

M. Lekuonak¹⁹⁸ aipatzen ditu Oiartzungo adibideak:

- 66- "Egitten **ariki**, ta bukatu arteko onik ez"
67- "Auzuan **biziki**, ta izagutzen ez"

Jakina denez, forma trinkorik ez duten aditzekin puntukaritasuna azaltzeko *ari izan*-ez baliatzen gara (ikus, hala ere, *EGLU-II*, 155-158); puntu-

194. Jean Etchepare *Mirikuaren Idazlanak, III. Kazetaritza (A)*, Elkar, Lizarra, 363.

195. P. PERURENA, *Euskarak sorgindutako...*, 42.

196. Jean Etchepare *Mirikuaren Idazlanak...*319.

197. MITXELENA, *EIG I*, 182

198. M. LEKUONA, aipatutako lana, 146.

karitasun hori gordez perpausa hanpatu nahi izanez gero, **ariki** adizkia da erabiltzen ditugun bideetako bat:

- 68-a- Pello eta Miren mahaia jasotzen ari dira
 - b- Pello eta Miren mahaia jasotzen **ariki!**
- 69 -a- Zuek goizeko seietan oraindik kantatzen ari zineten
 - b- Zuek goizeko seietan oraindik kantatzen **ariki!**

Horrela hanpatutako perpausen baiezkotasuna azaldu dugu gehienbat orain arte, baina nola eraikitzen dira ezezkoak? Aditz perifrastikoen jokaerari erreparatzen badiogu honako hau agertzen zaigu:

- 70- Eginahalak egin eta ez zuen atzetik harrapatzen

Perpaus hori hanpatzekotan modu desberdin hauetara egin liteke:

- 70-a- Eginahalak egin eta ez atzetik harrapatzen!
- b- Eginahalak egin eta atzetik ez harrapatzen!
- c- Eginahalak egin eta atzetik harrapatzen ez!

Jakina, hiru perpaus hauen arteko desberdintasuna non datzan erratea ez da batere erraza. Denak hanpatuak izanagatik, ñabardura ttiki eta enfasi kontua izan daiteke desberdintasun horren azalpena. Euskarazko hitzen ordena librea –edo sintagmen ordena librea¹⁹⁹, hobeki erran– eta (testu)inguruko elementuen garrantzia –hizkuntzatik at dauden elementuen garrantzia– nabarmena da. Ikus daitekeen moduan, adberbio ukatzailea *harrapatzen* aditz nagusiari zuzenean badagokio ere, oso leku desberdinetan agertzen zaigu: perpausaren hasieran, aditzaren aurretik eta aditzaren ondotik, ezezko partikularen eta aditzaren artean hainbat hitz azal daitezkeelarik.

-**Ki** atzizkia daramaten adizkiek ere antzeko erabilera erakusten dute ezezko perpausetan. Adibidez:

- 71-a- Ama ez zen heldu (= ez zetorren)
 - b- Ama **ez helduki!**
 - c- Ama **helduki ez!**
 - d- **Ez** ama **helduki!**
- 72-a- Horra zoazte? Hor inor ez dago eta!
 - b- Horra zoazte? Hor inor **ez egoki** eta!
 - c- Horra zoazte? Hor inor **egoki ez** eta!
- 73-a- Ustez urtasundarra zen eta ez zen urtasundarra
 - b- Ustez urtasundarra zen, eta urtasundarra **ez izaki!**
 - c- Ustez urtasundarra zen, eta **ez** urtasundarra **izaki!**

Badirudi, idatzizko literatura pixka bat arakatu ondoren, *ez helduki, ez izaki,...* ordena hori dela arruntena, baina bestelako ordenek ere bizirik dirautela ezin uka.

199. Ikus Eusebio OSAREN *Euskararen hitzordena komunikazio zereginaren arauera*, EHU, Erandio, 1990, 116-120 orr.

4.2.3. -KI aditz-atzizkia perpaus elkartuetan

Orain arte gehienbat perpaus bakunetara mugatu gara, eta badirudi arazoa garbi samar gelditu dela. Perpaus elkartuetara igarotzen bagara, aldiz, kontuak gehixego nahasten dira, itxuraz behinik behin.

Perpaus-elkarketan egokitzen zaizkigun bi perpausak hanpadura-maila berean ez egotea suerta daiteke, hau da, bi perpausetako bat hanpatua egotea eta bestea ez, hain zuzen ere enfatizatu nahi duguna zati hori bakarria delako. Kasu honetan perpaus hanpatugabeen ez da aditz laguntzailerik ezabatzen, baina bestean, hanpatuan, bai. Jakina, bi perpausetako alerik ez badago hanpaturik ez dira laguntzaileak ezabatzen. Jar ditzagun adibideak argiago ikus-teko:

- 74-a- Gurpila bere lekuan sartu nahi zuen, baina ez zen sartzen
- b- Gurpila bere lekuan sartu nahi, baina ez zen sartzen!
- c- Gurpila bere lekuan sartu nahi zuen, baina ez sartzen!
- d-Gurpila bere lekuan sartu nahi, baina ez sartzen!

Hanpaduraren ezaugarria aintzako hartuz, hau da, perpausa hanpatua den ala ez kontutan hartuz, ondoko eskematxo hau egin daiteke:

- 74-a- [₁ - hanpatua ₁], [₂ - hanpatua ₂]
- b- [₁ + hanpatua ₁], [₂ - hanpatua ₂]
- c- [₁ - hanpatua ₁], [₂ + hanpatua ₂]
- d- [₁ + hanpatua ₁], [₂ + hanpatua ₂]

Baina zer agitzen da bi perpausetako batean aditz trinkoren bat sartzen dugunean? Honako perpaus hauek oso arruntak dira:

- 75- Ez du sinesten, baina hala **izaki!**
- 76- Bat bihotz onekoa da, baina bestea alu samarra **izaki!**
- 77- Mirenengana joan nintzen; bera, ordea, ez etxean **egoki!**
- 78- Ez al zenuten ikusi istripua, bertan **egoki** eta?
- 79- Azkenetan **egoki**, eta hala ere ongi zegoela uste zuen!
- 80- Hara **joaki** eta, ezin al huen hori eraman?

Baina para ditzagun adibideak hanpaduraren goiko eskematxoa segituz:

- 81- Ez du sinesten baina hala da
[₁ - hanpatua ₁], [₂ - hanpatua ₂]
- 82- Ez sinesten baina hala da!
[₁ + hanpatua ₁], [₂ - hanpatua ₂]
- 83- Ez du sinesten baina hala **izaki!**
[₁ - hanpatua ₁], [₂ + hanpatua ₂]
- 84- Ez sinesten baina hala **izaki!**
[₁ + hanpatua ₁], [₂ + hanpatua ₂]

Ikus daitekeenez, perpaus bateko aditza perifrastikoa eta bestekoa trinkoa denean ez da inolako arazorik sortzen konbinaketa guztiak egin ahal izateko: perifrastikoa duen perpausari hanpatzen denean laguntzailea kentzen zaio, eta trinkoa duen perpausari aditzoinari -ki atzizkia eransten zaio. Erran dugun bezala, hanpatzen ez denean ez du inolako aldaketaren beharrik.

Literatura idatzian murgiltzen bagara honelako adibide mordoska aurki ditzakegu:

85- “*Alferrak nai du gan zerura, nekaturik gabe ordia*. Baiñan zeruko atea apal ta mearra izaki, eta an sartzeko burua makurtu ta bortxa **egin bear**”²⁰⁰

86- “Erran behar da biak bi etxe onetako seme alabak zirela. Bitxi iduritu zitzaion eske ibiltze hori mutikoari. Ba, bainan zer egin? **Ezkundu nahi** futxo hura ere, eta emazte-geiak buruan zuena ez araz zangoan **izaki**... Hor hitz-eman zion mutikoak: joanen zela beraz eske zenbeit egunez”²⁰¹

87- “Gaixo alimalea: xutik doi-doia **egoki**, eta oraino karga hori **eraman behar** bizkarrerat!”²⁰²

88- “**Orok jakinki** zer gizon oharagarriak dauden jarririk eskearen buru; **orok jakinki** nun diren makurrik handienak, itsusienak; **orok ikusten** aipatu ditugun herrietan ere badirela edo baditazkela mera edo erretor batzu berdin ohoragarriak, eta norat doazin gehienik sosak ez denez bitxi!”²⁰³

89- “Gilentoiniaz nahiko zuen tratua egin. Bainan –nunbaitik ere!– jabeak anaia bat Ameriketan **izanki**, eta haren baimenik gabe deusik **ezin antola**”²⁰⁴

90- “Lantegiaren jabeaikin partzuer izana leen, bazakien ango berri, baño ez aski, idekia uste zuen ataria etsia **egoki** eta sartu zen aldera **ezin itzuli**, suak artua bai zagon, tiro batez bere burua il zuen gizon doakabeak”²⁰⁵

91- “Eldu den 14 garrenean ostiral saindua **izaki** eta **nola jokatu?**”²⁰⁶

92- “Baño, beti gorago **beatu bear**; ustez ta goian dagon, guk bear dugun ura, lurrean **izaki eta**”²⁰⁷

93- “Zenbait kritikok, berriz, harrera uzkurra egin diote. Lehengo Charlot **izaki** gogoan, Barojak XIXgn. mendeko literatura bezala, eta gaurkoa **es-kasa aurkitzen** haren ondoan”²⁰⁸

94- “Txori malo bat **izaki** filme honetan giza-neurrikoa, eta haren azken gaiztoa **ikusi behar**”²⁰⁹

95- “Jakina, Kimika atzeratuxea **egoki** artean eta **ezin atera** bere gaiak gaurkoek bezain huts, garbi eta aratz, batere –ustez behintzat– erdalkutsurik eta gandurik ere gabe”²¹⁰

96- “Ikatza, nahiz Asturiaskoa izan, beti da ikatz. Opilak, berriz, ezin konta ahala **izaki** eta, ezin konta ahal daitezkeen artean, **nola hauta** geurea?”²¹¹

Adibide hauetan ikus daitezkeen gisan, aditz perifrastikoen laguntzailea ezabatzen da, eta adizki trinkoz osatzen diren perpausek **-ki** atzizkia hartzen dute, denak hanpadura maila berberean jartzen direlarik. Baina zer gertatzen

200. D. INTZA, *NEZ*, 135. Zigako esaera.

201. HIRIART-URRUTY, *Zezenak Errepublikan*, 37.

202. HIRIART-URRUTY gaztea, *Aitaren etxerat*, 301.

203. J. Etchepare *Mirikuaren Idazlanak, III. Kazetaritza (A)*, 420.

204. P. LAFITTE, *Euskal literaturaz*, 256,

205. LARREKO, *Nafarroatik*, 58.

206. Ib., 109.

207. Ib., *Lekukotasuna*, 147.

208. MITXELENA, *EIG I*, 135.

209. Ib., 142.

210. Ib., *EIG V*, 53.

211. Ib., *EIG VIII*, 36.

zaigu bi perpausetako aditzak trinkoak direnean? Eman ditzagun adibideak hanpaduraren goiko eskematxo bera segituz:

- 97- Dirua du, baina bera burugabea da
[₁ - hanpatua ₁], [₂ - hanpatua ₂]
- 98- Dirua **izaki**, baina bera burugabea da
[₁ + hanpatua ₁], [₂ - hanpatua ₂]
- 99- Dirua du, baina bera burugabea **izaki!**
[₁ - hanpatua ₁], [₂ + hanpatua ₂]
- 100- Dirua **izaki**, baina bera burugabea **izaki!**
[₁ + hanpatua ₁], [₂ + hanpatua ₂]

Badirudi azkeneko kasua oso arrunta ez izan arren konbinaketa guztiak egin daitezkeela, eta badirudi, halaber, bi perpaussek osatutako juntaduran bi **-ki-dun** forma ager daitezkeela, beti ere bi juntagaiak hanpatuak direnean.

Juntaduran ez da aparteko problemarik sortzen ditugun perpausetako bat hanpatu nahi dugunean, baina menderakuntzan arazoak daude. Izan ere, aditz trinkoari menderagailuren bat eransten zaionean (*-(e)n*, *-(e)la...*) ezinezkoa da haren ordeztu **-ki-dun** forma ibiltzea:

- 101- a- Han zegoenean etorri ziren Pello eta Miren
b- *Han egoki etorri ziren Pello eta Miren
- 102- a- Uste dut huraxe dela
b- *Uste dut huraxe izaki
- 103- a- Doan gizona Pello da
b- *Joaki gizona Pello da
- 104- a- Txarra delako ez du probatzen haragirik
b- *Txarra izaki ez du probatzen haragirik
- 105- a- Ba al dakizu non dagoen Pelloren etxea?
b- *Ba al dakizu non egoki Pelloren etxea?
- 106- a- Begira zein den hor!
b- *Begira zein izaki hor!

Alabaina, idatzizko literaturan salbuespentzat jo daitekeen tankera hone-tako adibide bakar bat aurkitu dugu:

- "Hurbill içan cirenean cihacen herritic eguin çuen iduri hura urrunago
goaqui"²¹²

Nolanahi ere den, 4.2.5 puntuan diogunez, *izaki (eta)*-k zenbaitetan kausazko edo kausa-azalpenezko balioa izan dezake, eta hortaz, mendeko perpausetan sekulan azaltzen ez dela erratera ere ez gara ausartzen.

4.2.4. *-Ki eta galdegaia*

Irakurlea ohartu izanen denez, orain arte hanpaduraz hitz egin dugunean perpausen hanpaduraz aritu gara, eta ez galdegaiaz edo mintzagaiaz, **-ki**-ren bitartez hanpatzen duguna perpaus osoa baita, eta ez perpaus bateko sintagma bat edo bestea. Argi utzi nahi dugu hemen darabilgun hanpadura kontzeptuak ez duela zer ikusirik beste horrekin; kontua ez da informazioa bide-

212. Haraneder, *Evangelio Saindua*, 168. Ikus honetaz gorago dioguna.

ratzen duten elementuak non kokatzen diren zehaztea, baizik perpausari ña-bardura, indar eta berezitasun jakin bat ematea.

Hala ere, norbaitek galde diezaguke perpausak hanpatzeko modu horrek ez ote duen zer ikusirik hitzordenaren bitartez hanpatzen diren elementuekin, edo galdegaitako beste elementuren bat jotzen denean **-ki** aditz-atzizki hanpatua erabil ote daitekeen. Gure ustez, ez dute halako loturarik, ez dute batak bestearekin zer ikusi handirik. Batean perpaus osoaz ari gara eta beste-an, aldiz, perpaus zatiez edo sintagmez eta hauen ordenaz.

Dena dela, loturarik ez dela frogatzeko ikus ondoko adibide hauek:

107- Nor izango eta **aita** izaki!

108- Non eta **hantxe** egoki!

109- Nora eta **hara** joaki!

110- Han zein zegoen begiratu, eta **Pello** izaki!

111- "Ondoko poema hauek ere halaxe idatzirik utzi zituen, femeninoaren bigarren pertsonan idatziak; halere, bat badu hirugarren pertsonan izkiriaturik utzi zuena. **Zergatik** ez jakinki honako motiko honek, ordea"²¹³.

Etsenplu hauetan galdegaiak zein diren garbi asko azaltzen da, baina halere **-ki**-dun adizkiak inolako oztoporik gabe erabiltzen dira. Agerian gelditzen da perpausaren barneko zein elementuz ari garen hitz egiten, baina aldi berean nabarmena da perpaus osoa besarkatzen duen hanpadura berezia azpimarratzen dugula, **-ki** aditz-atzizkiak adierazten digunez.

4.2.5. *-Ki-ri ematen zaizkion balioak*

Begi bistan dago mintzairazko adierazpena, oro har behintzat, idatzizkoa baino askozaz adierazkorragoa, enfatikoagoa eta biziagoa dela. Era berean, mintzairazko adierazpenaren bizitasuna eta azkartasuna direla eta, askotan perpausak murriztu eta laburtu egiten ditugu beharrezkoa den informazioa baizik ez emanez.

Bi ezaugarri horiek kontutan izanik, ez da harritzekoa hizkuntza mintzatu horrelako adizkiak maizago erabiltzea idatzian baino. Eta bestalde, normalagoa da, idatzizkoarekin alderatuz, forma laburragoak, motzagoak ibiltzea, eta behar-beharrezkoak diren elementuak besterik ez ematea, bestelako informazio guztia alde batera utziz.

Ildo beretik, eta gure gaiari lotzen gatzazkiolarik, diogun horrelako formak normalean perpaus laburretan agertuko zaizkigula, bestelakoetan ere ager dakizkigukeen arren:

112- Zu **izaki**!

113- Zuk **izaki**! (**ukanki**).

114- Han **egoki** hura!

115- Ama ez **helduki**!

116- Zuk **eramaki** labana motxilan!

117- Elkarrekin **ariki** lanean!

213. Patziku PERURENA, *Emily*, 71.

Horregatik, ez da harritzekoa -ki aditz-atzizkia indar berezia eman nahi zaien perpaus laburretan, esamolde jakin batzuetan, errefrau edo atsotitzetan eta antzekoetan erabiltzea. Damaso Intzak bildutako erranairuetan eta berak egiten dituen iruzkinetan batzuk agertzen dira:

118- "*Atzetik elduki*. Bi aldetara artzen da esaera au: 1) norbaiti agertu zaion ajea, lendik ere bazuela; 2) norbaiti uste ez zuenen bat bere atzetik etorri zaiola"²¹⁴.

119- "*Oñezkorik izan nai ez, eta zaldizkorik ez elduki*. Olatsu toki askotan"²¹⁵.

120- "*Atsa izaki gure bizia!* Jende gutxik gogoan artzen duten egia orixe!"²¹⁶.

121- "*Gorrontz ta Olano, biek «hermano»: Gorrontz-en artzeko, bere burue galtzeko*. Ordaintzale txarrak izaki? Gorrontz ta Olano bi erri koxkor dire, Lizaso ondoan"²¹⁷.

122- "*Gizon bizar-gorri, andre-zapaltzalle*. Gizon zakarra, gogorra izaki"²¹⁸.

123- "*Ameka etxe, ameka labe, ogei ta bi zetabe: bata bertziaz beartu gabe*. Aniz erriaz esaten da ori. Erri txikia bafía etxealde onak izaki nonbait"²¹⁹.

124- "*Atsa izaki gure bizia!* Atsa edo arnasa bezin ariña, galkorra, iragan-korra"²²⁰.

125- "*Bearkundia izaki*. Bear gorrian aurkitu"²²¹.

126- "*Maiatza, otzak eta goseak ille*. Ola iltzen diren jendeak ere izaki"²²².

127- "*Alferrak nai du gan (joan) zerura, nekaturik gabe ordia*. Baiñan zeruko atea apal ta mearra izaki, eta an sartzeko burua makurtu ta bortxa egin bear"²²³.

128- "*Naikoa izaki, eta alare nigarrez*. Geiago izan naiez; zenbat olako, zoritxarrez"²²⁴.

129- "*Handi-naia, egonen aiz gutirekin*. Aundi-naiak gutxi izaki ta"²²⁵.

Manuel Lekuonak ere ematen ditu antzeko adibideak²²⁶:

130- "Aurrian izaki, ta ekusten ez".

131- "Azkenetan egoki, eta ongi zegola".

132- "Itxera zijuala uste, ta mendira juaki".

133- "Egitten ariki, ta bukatu arte onik ez".

Perpaus mota hauetan ikus daitekeenez, -kidun adizkiak ez doaz beti bakarrik; askotan beste juntagailu edo lokailuren bat hartzen dute: *eta, baina*,

214. *Naparroa-ko Euskal-Esaera Zarrak*, PV, Iruñea, 1974 (*NEZ* hemendik aitzina), 53. Leitzako esaera zaharra.

215. *Ib.*, 65. Goizuetako esaera.

216. *Ib.*, 87. Basaburu Nagusiko esaera.

217. *Ib.*, 121. Ultzama.

218. *Ib.*, 124. Beuntza.

219. *Ib.*, 127. Baztan.

220. *Ib.*, Baztan.

221. *Ib.*, 129. Baztan.

222. *Ib.*, 132. Baztan.

223. *Ib.*, 135. Zigako esaera.

224. *Ib.*, 138. Zigako esaera.

225. *Ib.*, 160. Luzaide.

226. Aipatu lana, 146.

ordea, e.a. Errate baterako, ingurune jakinetan, honako perpaus hauek aurki ditzakegu:

- 134- Hala **izaki eta!**
- 135- Baina zu **izaki!**
- 136- Zuk **izaki**, ordea!
- 137- Hura han **egoki eta!**
- 138- Baina ama ez **helduki!**
- 139- Biak elkarrekin lanean **ariki eta!**
- 140- Zu hara **joaki eta!**

Perpau sak hartzen duen balioa ez da, eskuarki, berez **-ki** aditz-atzizkiak ematen diona, juntagailuak ematen diona baizik. **-Ki**-dun formak egiten duena perpausa hanpatzea baizik ez da; jakina, aipatutako partizipioari juntagailuren bat eransten bazaio honek ematen dion balioa hartzen du. Orduan, dagokion juntagailuaren arabera, balio adbersatiboa, esplikatiboa, kausal-esplikatiboa, e.a. hartuko du. Juntagailurik gabe ere **-ki**-dun forma duen perpau sak balio horiek har ditzake:

- 141- Euskaraz ederki mintzatzen da, bera goizuetarra **izaki!**
- 142- “*Erauntsi aÑe estalki*. Ez beti ola **izaki**”²²⁷.

134. perpausa beste batean “txertatu” nahi izanez gero, edo beste batekin juntatu nahi izanez gero, honela eginen genuke:

- 143- Ez sinesten, hala **izaki eta!**
- 144- Hala **izaki eta** / ez sinesten!
- 145- Hala **izaki** / eta ez sinesten!

Agi denez, *eta* juntagailua duen zatia aurrera botaz gero, askotan zaila egiten zaigu perpau saren muga non dagoen kokatzea. Era berean, etenaren lekunearen arabera perpau sak juntatuaren edo mendekoaren aztarna hartuko du.

Bada arestiko adibideetatik, itxuraz behintzat, arrunt hurbil dagoen beste bat:

- 146- Hala izanik, ez sinesten!

Baina, jakina, itxura oso antzekoa eduki arren, izatez desberdina da, **-ki** aditz-atzizkiak juntagailua eskatzen baitu kasu honetan, eta ezin inola ere goikoaren pareko izan:

- 147- *Hala izaki, ez sinesten.

Para dezagun beste adibide bat:

- 148- Hamar etorri ziren, (eta) hauetatik zortzi ikasleak **izaki!**
- 149- Hamar etorri ziren, hauetatik zortzi ikasleak izanik.

Oso antzekoak dirudite begi bistara, eta zentzuaren aldetik hala dira zenbaitentzat, baina guretzat oso bi gauza diferente dira. Lehenengoa perpau s hanpatua da; gazteleraz “(y) resulta que” itzulingurua erabiliz irauliko genu-

227. *NEZ*, 39.

ke (“unibertsitatetik hamar etorri ziren, hauetatik, espero genuenaren kontra, zortzi ikasleak izaki!”). Ohar gaitzkeenez, *eta* juntagailuarekin askoz ere aiseago antzeman dakioke perpausari, baina arazoak juntagailua ezabatuz bi perpausak alboratzen ditugunean sor dakizkiguke, eta zer erranik ez **-ki**-dun esaldia beste handiagoren baten barnean tartekatzen dugunean. 149.a, berriz, gerundiotzat jo genezake, inolako hanpadura-arrastorik ez duelarik. 148.a juntaduraren –alborakuntzaren– bidez elkartua da; 149.a, aldiz, ez. Beste adibide polit bat honako hau izan daiteke:

150- “... helduak galdetzen dio ez ote duen anaia zaharragoarentzat goxkirik jaso eta, umea ume izaki, hona hemen bere erantzuna”

Dударик ez dago perpaus honetan “umea ume izaki” tartekatu dugula beste guztiaren erdian inziso gisa edo azalpen bat emanaz. Askorentzat *izanik*, *izanez* edo *denez*-en parekoa dateke, baina diferenteak dira; guretzat hurbilago dago “umea ume baita” perpausetik “umea ume izanik” perpausetik baino. Beste modu batera idatziz agian garbiago ikusiko genuke:

151- “... helduak galdetzen dio ez ote duen anaia zaharragoarentzat alerik jaso eta, umea ume izaki!, hona hemen bere erantzuna”

Harridura-marka hori ezarriz perpausari ñabardura berezia ematen diogu aipatu ditugun beste formetatik (*izanez*, *izanik*, *denez*) urrunduz. Perpaus hori azalpen bat emateko tartekatu dugu, hortik datorkio perpaus kausal-esplikatiiboaren zantzua, ez berez, lehen erran dugun moduan, hala duelako, inguruneak ematen diolako baizik; gainera tartekatze hori nolabaiteko indarra emanaz gauzatu dugu, eta horrexegatik azaltzen da **-ki** aditz-atzizki hanpatzailea. Beste antzeko perpaus hanpatu bat txerta dezakegu horren ordeztu eta goiko perpausaren paretsuko geldituko litzateke:

152- ... eta, umea ume jaio, hona hemen...

153- ... eta, umea ume izaten (beti), hona hemen...

154- ... eta, umea ume izanen (beti), hona hemen...

155- ... eta, une hartan umeak ez kasurik egiten, hona hemen...

Hor tartean sartu ditugunak perpaus hanpatuak direla ziur gaude, indar berezia eman baitiegu laguntzailea kenduz; baina gure kasuan, goiko adibidean, markatu nahi izan duguna nolabaiteko puntukaritasuna izan da, eta arrazoi horrengatik erabili dugu **-ki** aditz-atzizkia (ikus, dena den, hirugarren atalean Mitxelenaren ekarpena iruzkintzean dioguna).

Nahasketa honetatik datorke, gure ustez, **-ki** atzizkiaren erabilera nolahalakoa. Honako hauek mostratako:

156- “Nolanahi ere, gogora etor dakiguke honako zalantzaren bat, alegia, eta juntagailua **izaki** lokailu lanetan aurki badezakegu, ez ote da pentsatu behar berez lokailu omen direnak ere (...), perpaus juntatuetan agertzen direnean, juntagailu direla eta, horrenbestez, juntagailu/lokailu arteko bereizketa funts gabea?”²²⁸

228. Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*, Bilbo, 1990, 22. Letra beltza gurea da.

157- “Azalpen honek bi baieztapen egiten ditu: euskaraz badugula ordena ez-markatu bat, batetik; ordena ez-markatu horretan mintzagaiaren tokia izen sintagma subjektuak betetzen duela, eta iruzkinarena, berriz, objektua eta aditzak bestetik. Hori horrela izaki, «Piarresak sagarra jan du» eta «sagarra Piarresak jan du» esaldiak konparatzen baditugu, lehengoak bakarrik segitzen duela ordena neutroa esan daiteke, bistan denez”²²⁹

158- “(272a)n izenondoak juntatzen dira eta etxe bakar bat aipatzen da; aldiz, (272b)n, sintagmak juntatzen dira, bigarreanean izen ardatza ezabatuz. Azken honetan bi etxe aipatuak izan daitezke, bata zaharra, eta bestea ederra **izanki**”²³⁰

159- “Aita Ramon, 1837an Auritzen sortua, ‘Martin zurginarena’ etxeko jabea zen (bere aita bezala herriko errieta **izanki**, etxea ‘Maistronea’ izenez zen komunzkiago ezagun)”²³¹

160- “Semeak ez zuen nehundik ere itzuli nahi izan, beldur eta ez fidaturik; ondarrean, bermeak emanik eta familia Iruñean **izanki**, itzuli zen”²³²

Adibide hauetan, gure iritziz, **-ki** aditz-atzizkiaren erabilera bortxatu samarra da, eta zenbait kasutan **-(r)ik** gerundiokidetzat ere hartzen da. Erabile-ra hau, jakina, gure usadiotik urrunko dago.

5. -KI ATZIZKIAREN HEDADURA GEOGRAFIKOA

Aurreko puntuan ikusi dugun modu hanpatzaileaz gainera, **-ki** aditz-atzizkiak Nafarroan baditu beste bi erabilera:

1-Forma trinkoaren ordez aspektu puntukaria aditzera emateko balio duena (ikus gramatikarien ekarpenak aztertzerakoan erran dena): *ibilki naiz* ‘nabil’, *eramaki nuen* ‘neraman’.

2-Diosal egiteko ibiltzen duguna (ikus gorago): *zer, egoki?*, hau da, *zer, bazaudete?* edo *zu ere ariki, eh?*, hots, *zu ere ari zara, eh?*

Erabilera desberdin hauen hedadurari dagokionez, zaila izan ohi da gertakari batek nolako zabalkundea duen zehatz-mehatz erratea, eta oraingoan ere horixe gertatzen zaigu guri, besteak beste gure helburu nagusia ez baita **-ki**-ren hedaduraren berri ematea.

Gipuzkeraz idatzi lanetan guk bakanka baizik ez dugu aurkitu; salbuespen bakarrak Lizardiren lanak eta Uztapideren bi adibideak dira (ikus gorago dioguna). Lehenak dituen lekukotasunen artean berak sortutako *sartuki* aipa daiteke, hor Patxi Zabaletaren azken nobelan ikusten den atzizkia eraman dezaketen aditzen kopurua handitzeko ahalegin bera islatzen baita:

“Zoridunen etxeak / Iguzkik bai-baitakizki, / Gazte’ren leioz barne / besoa **sartuki**, / begiak uki... / Gordeka, ala datortzu / adiskide yostalari”²³³

229. Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Mungia, 1993, 30. Letra beltza gurea da.

230. *EGLU-IV*, 60, letra beltza gurea da.

231. Larrekoren *Gerla Urte*, *Gezur Urte* liburuaren hitzaurreko –J. A. IRIGARAIk egina da hau– 15. orrialdea. Letra beltza gurea da.

232. *Ib.*, 26. Letra beltza gurea da.

233. *Olerkiak*, 239.

Euskaltzainburua izan zen Manuel Lekuonak ez bide zuen inoiz ere entzun Probintzian. Hona hemen bere hitzak:

“Azkue jaunak dionez, Laburdieran eta Gipuzkoeran ere erabiltzen da *-ki* ori.

Gipuzkoari gagozkiola, nik ez det entzuten Gipuzkoan –Naparroako mugan izan ezik– olako *-ki*rik, ez gerundio-antzerak, ez bestela”²³⁴

Mitxelena atzizkiaren gipuzkoartasuna ez du erabat zokoratzen. Honela dio:

“En efecto, *-ki* es de empleo muy restringido, mucho más alto-navarro que guipuzcoano: se emplea en Rentería, pero no en San Sebastián, por ejemplo (...)”²³⁵

Ekialdean ere ugariagoa da, askoz, testu berrietan testu zaharretan baino –beharbada azken hauetako anitz itzulpenak direlako, haiek oro har aise euskara herrikoiagoan izkiriaturik dauden bitartean–, eta hizkera bizian testuetan baino gehiago, Nafarroan bederen.

Ditugun datuetan eta hizkuntz esperientzian oin harturik, mintzagai dugun bukaera ekialdeko euskalkietakoa dela erran daitekeela uste dugu, alegia, Iparraldeko goi-nafarreraz, hegoaldeko goi-nafarreraz, eta hauetaz ekialdeko gelditzen diren euskalkietan ibiltzen dela edo zela baieztatu daiteke, ekialdean ere eskualde guztietako lekukorik ez dugun arren. Zuberoko testuetan, kasu, ez da sekulan –guk ematen diogun balioaz erran nahi dugu– agertzen, guk dakigula, ezta Erronkari²³⁶ eta Zaraitzun²³⁷ ere. Azken honetan, hala ere, ibiltzen zelako susmoa badugu, ondoan dagoen Aezkoan oraindik ere erabiltzen baita. Bailara honetako datuak –Orbara, Orbaizeta eta Abaurregainekoak dira– Iñaki Kamino filologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleari zor dizkiogu. Hona hemen:

- “nik erran fateko eta gonek guziak *xakinki*” (Abaurregaina)

- “Ongi *eoki* ta orai au pastu zeigu”(Abaurregaina)

234. M. LEKUONA, aipaturako lana, 147-148.

235. Luis VILLASANTEREN *Sintaxis de la Oración Simple*, Editorial Franciscana Aránzazu, Oñati, 1980, laneko 205-206. orrialdeetan mintzo da atzizki honetaz.

236. R. M^a AZKUEAREN “Particularidades del dialecto roncalés”, *Euskera*, 1931, 207-406, lanean ez dugu aztergai dugun aditz-atzizki honen berririk bat ere aurkitu; José ESTORNÉS LASAREN *Erronkari’ko Uskara*, Auñamendi, Donostia, 1968, liburuan eta “Mendigatxa’k Azkueri Kartak, 1902-1916. Eta Erronkari’ko Uskaratik utzulpen ta goarpenak”, *FLV*, 43, 1984, 55-127, artikuluan ere ez da *-ki*-dun formarik agertzen, ez eta ere Koldo MITXELENAREN “Contribución al conocimiento del dialecto roncalés”, *SHLV*, 246-272, “La posición fonética del dialecto vasco del Roncal”, *ib.*, 273-297, “Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte”, *ib.*, 298-319, lanetan. Koldo ARTOLAK argitaratu emandako “Erronkariko uskararen azken hatsak...eino’re”, *FLV*, 25, 1977, 75-107, eta “Fidela Bernart anderea euskal hiztun erronkariarra”, *ib.*, 58, 1991, 247-281, artikuluetan ere ez dugu *-ki*-dun formarik harrapatu, ez eta Pedro DE YRIZARREN *Morfología del verboa Auxiliar roncalés (estudio dialectológico)*, Nafarroako Gobernu-Euskaltzaindia, Morentin, 1992, delakoan ere.

237. Koldo MITXELENAREN “Un catecismo salacenco”, *FLV*, 40, 1982, 493-495, eta José ESTORNÉS LASAREN “Zoilo’ren uzta. La cosecha de Zoilo”, *ib.*, 45, 1985, 31-93, miatu ditugu.

- “Tratorea ta *izaki ta*” (Orbara)
- “Zerra *izaki ta*” (Orbaizeta)
- “Ajuntamientoa *izaki*” (Orbaizeta)
- “*Xakinki*” (Abaurregaina)
- “*Eokiki*” (Abaurregaina)

Ikus daitekeenez, adibide hauek –denetan testuinguruak nahi bezainbat laguntzen ez badu ere– guk hanpatzaile izenez bataiatu dugun erabileraren barruan daudela esan daiteke. Aipatu hizkuntzalariak jakinarazi digunez, Aezkoan **-ki** aditz-atzizkia ez da ibiltzen ez puntukari moduan ez eta diosal egiteko ere (hau da, ez da *joaki naiz* ‘noa’-ren modukorik aditzen, ez eta *zer, egoki?*-ren tankerakorik). Eman ditugun adibide horietan ikus daitekeen bezala, *jakin, izan* eta *egon*-ek hartzen dute aztergai dugun morfema, ondarrekoak bi aldiz (*egokiki*). Honek, alabaina, ez du erran nahi beste aditzen batekin erabiltzen ez denik.

Erroibarko Aurizberrin Damaso Intzakoak (ikus gorago) bere baitan **-ki** hanpatzailea duen esaera hau bildu zuen:

- “*Denak presa, baño asti izaki*”²³⁸

Haran bereko **Mezkiritz** herrian **-ki** ez dute ez puntukari moduan ez diosal egiteko erabiltzen. Gure informatzaileetako batek²³⁹ *zer, ariki?*-ren ordainez *a(r)i za(ra)te gogotik?* erraten dutela dio, eta *zer, egoki?*-ren ordez *ze(r) a(r)i za(ra)te, deskantsu iten?*, eta *zer, ibilki?*-ren ordez *baza(b)iltze?*

Perpaua hanpatzeko erabiltzen dute, baina oso aditz gutxirekin ((*e*)*karki, eramanki, ibilki* ez ditu ontzat hartzen), eta bestelako formak ere ibiltzen dituzte; gure “herrikoa izaki ta ez duzu ezagutzen?” “herrikoa izenta, ez duzu zaundu?” ematen du, eta gero beste hau ere ateratzen zaio: “hainbertze diru *izen ta*, umeak hola beztitutu (sic) gabe ta *iuki!*”. *Izaki(ki)* ere ibiltzen du: “*izeki(ki) traktorea ta nola daen mandoeki* (erranen, galdeginen nioke)”, “etxean *izeki* te ze(r)taz erosi duzu, zendako erosi duzu?”, “etxean *izekiki* te zendako erosi tuk?”.

Jakinki ezagutzen eta erabiltzen du: “uste nuen ez zinuela (?) jardukitzen batre (?) ta *jakinki* orai”, edo “(errain neko) *jakinki* juan behar nula Iruñera ta ja nola ez ziren erran”, “*jakinki* badugule, ta ze(r)tako karri tuzu?”. Batean *jakinkiz* itzuri zaio: “dirue(z) ez *jakinkiz* zer in, non sartu, nola gastatu, ta hor buluzik!”. *Helduki* eta *etorki*, ordea, ez ditu ibiltzen, eta gure “umeak goseak hilik eta ama ez helduki” “hemen goseak denak ta ama karriken, ez *tor-tzen*” bihurtzen du.

Mezkiritzko gure bigarren informatzaileak²⁴⁰ ere **-ki** ez du ez puntukarizat ez diosaltzat ibiltzen, baina bai perpaua hanpatzeko, nahiz bakarrik *egoki, izaki* eta *jakinki* formak ibiltzen dituen:

- “Errain neko: baratzean hainbertze porru *izeki* te zendako erosten duzu?”.

238. NEZ, 145.

239. Marcos Saragueta, 1909.

240. Marterena etxeko Juan Ernaga Urrutia, 1914 inguruan sortua.

- "Ondoan *egoki* altzurre ta ikusko nue!"
- "Herrien *egokiki* te ez duzu zauntzen?"
- "*Jakinki* juan behar nuela nik Iruñera, eta nola hartu duzu autobusa?"
- "Traktorea *izakiki* te, nola zazi abreaiki" (= "zertaz zazi abreaikin *izenez* traktorea, duzun bezala!")

Gure "osasun ona izaki eta, nola ez zara ateratzen karrikara?" "nola ez haiz atratzen paseoa ematera o buelta ematera, *izenez* osasun ona, *ibiliz* ongi?" bihurtzen du, *izaki* eta *izanez* zenbaitetan behintzat bata bestetik oso hurbil daudelako seinale. *Biziki*, *ekarki*, *eremanki*, *etorki*, *ibilki*, *helduki* ez ditu ibiltzen.

Esteribarren Eugin eta Iragin erabiltzen da, eta lehenago egun euskara galdu duten herrietan ere ibiltzen zela dirudi, hegoaldean dagoen **Eguesibarko** Elkanon lekukotasun idatziak (Joakin Lizarragarenak) baititugu. Eugin hazitako Iragiko Kruz Lintzoain gure informatzaileak (1924) ez du puntukaritzat ibiltzen, ez eta diosal egiteko ere. Bai, ordea, perpausa hanpatzeko. Hona nola:

- "Uste nuen ez zekiela, baina *jakinki*"
- "Txakurra *izaki* eta uste nuen bildotsa zela!"
- "Ustez basurdea zen eta ardia *izaki!*"
- "Ustez ultzamarra zen, eta ez ultzamarra *izaki!*"
- "Kruzek etxean egon behar zuela, baina ez etxean *egoki!*"
- "Umea goseak hilik zegoen, eta ama ez *helduki!*" (= ..., eta ama ez *heldu!*)
- "Honata erran dik, eta harata *joaki!*"
- "Iruñera *joaki* eta zer gostatzen zaik hau e(ra)matea?"
- "Medikuak erran dio ez ibiltzeko, eta hala ere *ibilki!*"
- "Kotxea ez ibiltzeko erran dio, eta hala ere *ibilki!*"
- "Erraten ziotet ez ibiltzeko eta hala ere *ibilki!*"
- "Goizeko seietan kantatzen *ariki!*"
- "Lan hori egiten *ariki* eta akabatu arteko onik ez!"
- "Erran nion ez aritzeko, eta hala ere *ari!*" (ez «*ariki*» kasu honetan, Kruzen arabera)
- "Nik zertarako (sic) e(ra)man behar dut kamara, zuk bideoa *e(ra)maki eta!*"

Biziki eta *edukiki*, ordea, arbuatu egiten ditu.

Anue ibarreko **Olague** herrian ez dute **-ki** puntukaritzat ibiltzen, baina bai diosal egiteko. Informatzaile batek²⁴¹ *ariki?*, *ariki?*, *egoki?* onartzen ditu, baina ez *biziki?*; honen ordainez *bizi zaizte?* ibiltzen duela dio. Perpausa hanpatzeko, *biziki*, *ekarki*, *e(ra)maki*, *ibilki* ("medikuak ez ibiltzeko erran dio, baina hala ere badabile"), ez ditu onartzen, baina bai *helduki*, *izeki* ("aitzinean *izeki* eta ez ikusten"), *jakinki* ("euskeraz ez zakiela uste nuen, eta hala ere *jakinki* edo *bazakien*"). Bere gisa, solasean ari ginela hau atera zaio: "ezautu bai ("ezagutu" ibili genuen guk), baina (baine?) zerbait gertatu den gauz bet (sic) ez *jakinki*", *joaki* ("harara *joaki*, eta zer gostatzen zaizu e(ra)matea?"). *Ariki* zalantzan gelditzen da ("akaso bai").

Olagueko gure bigarren informatzaileak²⁴² *zer*, *ariki?*, *zer*, *biziki?* ez du onartzen, baina *zer*, *egoki?*, *zer*, *ibilki?* bai. Hanpatzaile moduan *ariki* (?),

241. Pedro Senosiain, 1925, Etxarri etxekoa.

242. Gesaltzea etxeko Pedro Iraizoz, 1919.

(e)karki, e(ra)maki, ikusiki ez ditu ontzat hartzen, baina bai helduki (“haurre goseak ta ama ez helduki!”), izeki, jakinki, joaki (?).

Odieta ibarreko Latasa herrian ere erabiltzen dute -ki atzizkia²⁴³, baina ez puntuaritzat. Gure informatzaileak diosal egiteko zer, ariki? ez du onartzen, baina bai zer, egoki? eta zer, ibilki?. Hanpatzailatzat izaki (“ez al duk ezauntzen hori, herrikoa izeki?”), egoki (“altzineko aldean egoki te ez duk (i)kusten?”), joaki (“harara joaki ta zer gostatzen zaik e(ra)matea!”), eukiki (“altzineko aldean eukiki ta ez duk (i)kusten?”), jakinki (“nik uste nuen uskeras ez zinakiela zuk, eta zuk jakinki!”), “hik zertako da(ra)mak nabala, jakinki nik bada(ra)matela!”), baina ez biziki (gure “herrian biziki eta ez duk ezauntzen”-en ordainez “herrien bizi ta ez duk (e)zauntzen?” eman digu), (e)karki (guk emandako “ez ekartzeko erran dizut eta hala ere ekarki!” “ez kartzeko erran dizut eta hala ere karri!” bihurtu du), ibilki (gure “medikuak ez ibiltzeko erran dik, eta hala ere ibilki” eta “kotxea ez ibiltzeko erran dizut eta hala ere ibilki” honela erraten dituela dio: “medikuek manatu (d)ik ez ibiltzeko ta hola (sic) ere ibili behar!”, “kotxe hori ez ibiltzeko erran nien ta hala ere ibili (behar)!”).

E(ra)maki ere erabiltzen dute, baina ez beti. Adibidez, gure “ez eramateko erran diat eta hala ere eramaki!”-ren ordainetan hau eman digu: “ez e(ra)mateko erran diet eta hala ere e(ra)man (behar)!”, baina guk proposatu “zertarako eramane behar duk labana, nik eramaki eta!” “zertako da(ra)mak hik nabala, nik emaki te!” modura ematen du, -ki-dun adizki eta guzti.

Ultzaman ere ibiltzen da, baina ez puntukari moduan. Alkotz herriko gure informatzaileetako batzuek²⁴⁴ ariki?, ibilki? eta egoki? «aldi bat edo berzte» ibiltzen dituztela erran digute. Hanpatzaile moduan ibiltzen dela seguru da. Honelakoak ontzat hartzen dituzte, «aldizke» ibiltzen dituztela diote: “ez ekartzeko erran nion eta hala ere ekarki!”, “ez eramateko erran nion eta hala ere eramaki”, “euskaraz ez zekiela uste nuen eta jakinki”, “umea izaki eta ez daki zer pasten den”, “pobrea zela uste nuen eta diru aunitz edukiki”, “ez zuela etxean egon behar eta egoki”, “etxera zihoala uste genuen eta mendira joaki”, “umea goseak hilik zegoen eta ama ez helduki!”, “medikuak ez ibiltzeko erran dio eta hala ere ibilki / ibili”, “goizeko seietan oraindik kantatzen ariki!”, “hara joaki eta zer gostatzen zaik hori e(ra)matea?”.

Informatzaileetako bati (Pedro Mezkiritz) hau atera zaio bere gisa, solasean ari delarik: “harek berexiko zigule hure, ta karnikion (sic, ‘ekarri nion’ edo)...hango (Aldudeko) neskakoei segiden taka! joan komertziora ta... eskribitu zion harek jakinki frantsesean...”.

Alkozko gure beste informatzaileak²⁴⁵ -ki diosal egiteko ontzat hartzen du, baina ez kasu guztietan: zer, ariki?-ren orde zer, ari za(re)te? ibiltzen duela dio, baina badirudi ariki ere ez duela guztiz baztertzen. Egoki? edo bazau(de)te? berdin ibiltzen dituztela dio, alegia, egoki ontzat hartzen du, eta

243. Apezenea etxeko Martín Elizondo, 1922, izan dugu informatzaile.

244. Maixterneko Pedro Mezkiritz, 1924, eta honen arreba den Felicitas Mezkiritz.

245. Goienagako Ignazio Goienaga, 1931.

berdin *ibilki?* eta *bazabiltzate?* *Biziki?* aldiz ez dutela ibiltzen dio, eta hori errateko *bizi haiz?* edo erabiltzen dutela.

-Ki hanpatzailea denean *ariki*, *edukiki*, *ekarki*, *ibilki* eta *jakinki* ez ditu ontzat hartzen, baina bai *eramaki*, *helduki*, *izaki* (ez beti) eta *joaki* (ez beti). *Jakinki* herri bereko beste informatzaile zaharrak erabiltzen duela segurua da, gorago ikusi bezala. Gure “*umea izaki* (e)ta, ez daki zer pasten den” ez dutela erabiltzen dio, eta honen ordez “*umea baita*, ez daki zer pasten den” erraten dutela, baina gero “*ingurukoak izaki*, eta bat (ere) ezagutzen ez” ontzat hartzen digu.

Bailara bereko *Iraizotz* herrian gure informatzaile batek²⁴⁶ *egoki?* *egoki?* eta *deskantsuan?* berdin ibiltzen dituela dio. Perpaua hanpatzeko (e)*karki*, e(ra)*maki* ez ditu onartzen, baina bai *egoki* (“*bistan egoki* eta hala ere ez du ikusten”) *ariki* (dudazkoa), *helduki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki* eta *joaki*.

Herri bereko gure beste informatzaileak²⁴⁷ *zer*, *ariki?*, eta *zer*, *ibilki?* ez ditu onartzen, baina bai *zer*, *egoki?*. Hanpatzailetzat ere ibiltzen du: “*ongi egoki te*, etxetik ezin atera haiz?”, “*hau herrikoa izeki* ta ez al duk zautzen?”, “*diru aunitz izeki* ta hala ere lanean”, “*uskeraz jakinki* ta erdaraz nondik airtzen yaiz!”, “*medikuek manatu* (d)ik ez ibiltzeko paseoan, ta hala ere *ibilki*” (“*medikuek manatu* (d)ik ez ibiltzeko paseoan, ta hala ere *ibiltzen*” ere eman digu), “*Iruña joaki te*, zer gostatzen zaik hau ematea?”.

Ekarki eta *eramaki* ontzat hartzen ditu, baina gero guk emandako ereduak (“*ez ekartzeko erran dizut* eta hala ere *ekarki*”, “*egurra ez eramateko erran dizut* eta hala ere *eramaki*”) bere modura errateko eskatzen diogunean beste hau jaulkitzen zaio: “*hori ez* (e)kartzeko erran, ta hala ere *badakarrek etxe(r)a*”, “*gauze ho(r)i dena* ez (e)kartzeko erran diet nik, ta zertako *dakarrek etxe(r)a*”, “*egurre ez emateko erran* ta o(ra)in hala ere *bada(r)amak?*”.

Biziki ez du onartzen, eta gure “*ondoan biziki* eta, ez duk ezagutzen?” beste modu honetara ematen du: “*ondoan bizi te*, ez al duk (e)za(g)utzen?”, eta *edukiki* ere ez, nahiz berak ez duela ibiltzen erraten ez duen. Azkeneko forma horren ordez *daukek* edo *eduki* darabiltza: “*dirue sobrante daukek* ta hala ere lanean ari haiz?”, “*diru aunitz eduki*, eta hala ere lanean, igual igual batere ez bayu!”.

Nafarroan mendebaldekotzat jo daitezkeen *Ergoien*, *Aranatz* eta *Burundán* ez da erabiltzen, eta ekialderagoko *Arruazun* ere ez²⁴⁸.

Araitz bailaran, Damaso Intzakoaren lana ikusirik pentsatzen genuenaren kontra (*izaki* erabiltzen du, egokiro), aztergai dugun atzizkia ez da erabiltzen: *Intzako* gure informatzaileak²⁴⁹ ez zuen ibiltzen ez diosal egiteko ez perpaua hanpatzeko, eta *Betelukoak* ere ez²⁵⁰.

Araiztar batzuek *Larraungotzat* jotzen dute -ki atzizkia, baina oraingoan ere espero genuenaz bestaldera –Uitzin hazitako Orixek ibili baitzuen bere

246. Felipe etxeko Simón Etxeberria, 1918.

247. Claudio Cabrero, 1913.

248. Datu hauek Jose María SATRUSTEGI euskaltzain nafarrari zor dizkiogu.

249. Zubieta baserriko Martin Zirako, 1934.

250. María Eugenia Arrizabalaga, 1946.

idazlanetan—, ibar horretan ez da erabiltzen. Guk mugako **Azpirotz**, **Errazkin** eta **Uitzin** galdegin dugu, eta barruragoko, hegoalderagoko **Baraibar** eta **Etxarrin**, eta erantzuna beti ezezkoa izan da, ez dutela erabiltzen, ez modu batera ez bestera, hots, ez balio bataz ez besteaz —puntukaritzat ez dutela ibiltzen garbi baikenekien lehenagotik ere—. Betelun herri honetara ezkon-dutako **Azpirozko** Miguel Olaetxea²⁵¹ elkarrizketatu genuen, eta **-ki** ez diosal egiteko ez hanpatzaile moduan ez zuela ibiltzen adierazi zigun, argi eta garbi, duda egiteko zirrikiturik utzi gabe, alegia. Adibidez, gure “auzokoak izaki eta, ezagutuko ez duzu ba!”-ren ordeaz “auzokoak *izanda*, ezagutuko ez duzu ba!” dio.

Errazkinen ere ez dute erabiltzen²⁵², ez eta **Baraibarren**²⁵³ ere. *Zer, egoki?*-ren ordain *zer, atxo itten?* ibiltzen omen dute zenbaitetan, *zer, ibilki?*-ren ordeaz *paseoan* edo *baha(b)ile?* eta “euskaraz ez zenekiela uste nuen eta zuk jakinki”-ren ordeaz “nik euskaraz ez zinakiela uste nuen, ta zuk *jakin* euskaraz, eh!” edo “nik euskaraz ez zinakiela uste nuen, baina *badakizo!*”. Gure “motel, motel! hori ezagutuko ez duk ba, horkoa izaki eta!” beste modu honetara ematen du informatzaileak: “hori ezagutuko ez duk ba, bertakoa *duk eta!*”.

Haran bereko **Etxarri** herrian gure informatzaileak²⁵⁴, beste herrietako informatzaileek bezala, **-ki** ez dutela ibiltzen dio. *Zer, egoki?*-ren ordeaz *zer, ego-nean?* erabili ohi dute, eta guk proposatu “uste nuen ez zenekiela euskaraz, baina jakinki” beste modu honetara ematen du: “uste nu(e)n ez zinakila euskaras baina *badakizu* euskaras, eh!”, eta gure “aitzurra ikusiko ez duk ba, aurrean izaki eta!”, “ez al duk ezagutzen?, motel, motel, hire etxe ondoan biziki eta!” “ez duk ikusten aitzurra, aurreko aldean *daukek eta!*”, “hi(r)e etxe ondoan *bizi dok eta*, ez al duk eza(g)utzen?” bilakatzen ditu.

Uitziko gure informatzaileak²⁵⁵ ez du **-ki** deusetarako ibiltzen: *zer, egoki?*-ren ordain *zer, egonen?* eman digu, eta *zer, ibilki?*-ren ordeaz *zer, baza(b)iltze?*. Guk proposatutako “aurrean izaki eta, ez duzu ikusten?”, “euskaraz ez zenekiela uste nuen eta jakinki!”, “baina motel, motel, ez al duk hori ezagutzen?, ondoko etxean biziki eta!”, “Santik euskaraz ederki hitz egiten du, uitziarra izaki eta!”, “medikuak ez ibiltzeko erran dio, eta hala ere ibilki!”, “ez ekartzeko esan dio, eta hala ere ekarki!”, “ez eramateko esan dio, eta hala ere eramaki!”, “herri guzian barna bere bila ibili eta non eta etxean egoki!”, “non barna ibili haiz bila, ni etxean egoki eta!” honela esaten dituela dio, hurrenez hurren: “aurreko aldin *dakezo*, ta ez dozo ikusten?”, “euskaraz ez zinikela uste nu(e)n ta *badakizu!*”, “ho(r)e ez duk izagutzen?, ondoko etxe hortan *bizi dok!*”, “harrek euskaraz badaki, hemengoa *data!*”, “medikuak ez ibiltzeko esan dio, ta halai *ibili!*”, “ez ekartzeko esan dio, ta halai *ekarri!*”, “ez eramateko esan dio, ta halai *eraman!*”, “herri guzian bere bila ibili eta *nun eta etxean egon*”, “ni etxean *egon da*, nun barna ibili haiz bila?”.

251. 1923.

252. Okiñenea etxeko Antonio Otxotorena, 1922.

253. Martixenea etxeko Manuel Martija, 1937.

254. Apezene etxeko Miguel Lasarte, 1934.

255. Martín Martirena, 1920.

Imozko herri guztietan ez dute jokabide bera: **Oskozko** gure informatazaileak²⁵⁶ ez du **-ki** diosaltzat ibiltzen, baina bai perpaus-hanpatzaitzat, nahiz ez beti: gure “etxean nahiko izaki eta, zertako erosten duzu gehiago?” “etxean nahikoa *izen ta*, zertako erosi (di)ttuzu? / zertako erosi (di)ttuzu, etxean nahikoa *izen ta?*” bihurtzen du; gure “medikuak erran dizu ez biltzeko, ta hala ere ibilki” berak “..., zetako zabilte?” erranen lukeela dio, edo bestela “medikuek erran die ez ibiltzeko, eta ni *banabille*”; gure “ekartzeko erran dizut eta zuk ez ekarki” “nik (e)kartzeko erran, ta harrek ez (e)karri!” bihurtzen du.

Beste aldetik, “Iruñaa *joaki* te ez duzu e(ra)man (enkargua)” ibiltzen duela dio, eta “Iruñara *joan behar* ta zer gostatzen zaizu ne(r)e enkargua ittia?” ere erran daitekeela²⁵⁷. *Jakinki* ere ibiltzen du; guk eredurik eman gabe hau atera zaio: “*jakinki* (hazie) behar du(d)ela ta ez duzu karri”. Gure “aita itxean egoki eta, zertako zabilta bila kanpoan?”, “atte etxean *egoki te*,...”, “atte itxean *izen ta*,...” edo “atte itxan *izaki te*, kanpoan ze(r)tako zabilte bile?” erran daitekeela dio.

Helduki ere ibiltzen du, baina ez *etorki*; azken honen ordainetan *etortzen* itzuri zaio: “hemen umeak erdi ne(g)arres ne(r)e kontu, ta zu ez *helduki!* /..., ta zu ez *etortzen!*”. *E(ra)maki* ere ez du erabiltzen, eta gure “ez eramateko erran dizut, eta hala ere eramaki” “nik erran dizut ez e(ra)mateko, bino *e(ra)man in duzu!*” bilakatzen du.

Ibar bereko **Goldarazko** gure informatzaileak²⁵⁸, ordea, ez du **-ki** deusetarako erabiltzen: ez puntukari gisara, ez diosal egiteko eta ez perpausa hanpatzeko ere. *Zer, egoki?*-ren ordez, *zer, egonin?* erraten dute, eta “herrikoa izaki eta ez duzu ezagutzen?” ibili beharrean “nola ez duzu iza(g)utzen, herrikoa *da ta!*” edo honen tankerako zerbait ibiliko luketela dio. “Umeak goseak akatzen eta ama ez helduki” aditzera emateko “umeak goseak akatzen eta ama ez (*da*) *etortzen / ez da heldu*” erraten dutela dio, eta “uste nuen ez zenekiela euskaraz baina *jakinki*” “uste nu(e)n ez zinakiela euske(r)az, baino *badakizo!*”.

Egoki, ekarki, eramaki, ibilki eta *joaki* ere ez ditu erabiltzen; gure “medikuak esan dizu ez ibiltzeko eta hala ere ibilki” “medikuk esan dizu ez ibiltzeko, ta halai ibiltzen *za(ra)!*” erranen lukeela dio, eta “ni zure bila ibili naiz kallean, eta zu etxean egoki!” “..., ta ni etxean *egon!*” bihurtzen du. *Biziki* ere ez du erabiltzen, eta gure “ondoan biziki, eta hala ere ez duzu ezagutzen hori” beste modu honetara erranen lukeela dio: “ondoan *bizi*, ta ez duzu iza(g)utzen ho(r)i!”.

256. Erdabidea etxeko Miguel Ziganda, 1908.

257. Guk proposatutako “guk ekartzeko esan eta zuk ez ekarki”-z ari dela «egin» ekialdean ere ibiltzen dela frogatzen duen esaldi hau jaulki zaio: “«etzazule (e)karri», eta ekarri **itten** balinbadu, «zértako karri duzu?»”. Ikus, gainera, geroxeago botatzen duen «eman in duzu!» ‘eraman egin duzu!’.

258. Manuel Olaetxea, 1926.

Basaburu Txikian Aranon²⁵⁹, Areson²⁶⁰ eta Goizuetan -ki hanpatzaile gisa²⁶¹ honako aditz hauekin erabiltzen dute: *ariki*, *biziki*, *egoki*, *ekarki*, *eramaki*, *helduki*, *izaki* (iragankorra nahiz iragangaitza) eta *joaki*-rekin. Diosal egiteko ere ibiltzen da, *ari izan*, *egon* eta *ibili* aditzekin (*ze(r)*, *zu (e)re a(r)iki?*, *ze(r)*, *zu (e)re egoki?*, *ze(r) zu (e)re ibilki?*).

Leitzan informatzaile batzuek hanpatzailatzat bakarrik onartzen dute, baina beste batzuek diosaltzat ere ibiltzen dute²⁶². Herri honetan atzizkiak bi aldaera desberdin ditu, -ki eta Leitzatik kanpo inon ere harrapatu ez dugun -kio²⁶³. Hanpatzaile moduan ibiltzen dituzten adizkiak hauek dira: *ariki / arikio*, *egoki / egokio*, *ekarki / ekarkio*, *eramaki / eramakio*, *etorki / etorkio*, *euki / eukio*, *helduki / heldukio*, *ibilki / ibilkio*, *izaki / izakio*, *joaki / joakio*. Hauetaz gainera, informatzaile batek –Koxme Zabaletak– *nahikio* ere ibiltzen du; honela, konparaziora:

- “Uitziko neskatxen batek Tuteneko mutille matte, baño attek Uitziko mutillakin ezkontzea *nahikio*, ta gorren (‘gogorreen’) hartzen ementzun neskatxen attek”

Diosal egiteko *ariki / arikio* eta *ibilki / ibilkio* erabiltzen dituzte.

Beste informatzaile batzuek²⁶⁴ ere diosaltzat *ibilki?* edo *ibilkio?* eta *ariki?* edo *arikio?* eman dizkigute; *etorki(o)?* ez dute ibiltzen. Hanpatzaile moduan beste hauek erabiltzen dituzte bi informatzaile hauek: *ariki* edo *arikio*, *egoki* edo *egokio*, *helduki* edo *heldukio*, *ibilki* edo *ibilkio*, *izaki* edo *izakio*, *jakinki* edo *jakinkio*, *joaki* edo *joakio*.

Leitzako gure beste informatzaile batek²⁶⁵ honelakoak erabiltzen ditu:

- “Nahiko diru *izaki* ta hala ere lanean ari duk!”
 - “Gasta a(ha)la bino diru gehio *izeki* te hala ere hor ari duk!”
 - “Manie duk ho(r)i gizona! Ongi *eoki* (< *egoki*) *te* ez ate(r)atzea!”
 - “Iruñe(r)a *joaki te*, hau ez diozu e(r)aman behar?”
 - “Gu(r)e Ainhoa Iruña *joakio* ta hau ez dit e(r)aman nahi!”
 - “Be(r)ak ez baito (?) e(r)amaten *jakinkio* nik hau e(r)amate(r)a joan beha(r) (d)otela!”
 - “*Jakinkio* nahitanaez e(r)aman bea(r) (d)otela..., halare ez dit e(r)aman!”

Edozein moduz, ez ditu beti honelakoak ibiltzen:

- “Hemen *euki* (‘eduki’) *te*, no(r)a joan hintzen ba bile? Han bai ez duke-la bilatuko!”
 - “Holako makina *euki*, ta ze(r) a(r)i haiz gizona?”

259. Jose Mari Legarreta, 1913, eta Miguel Loyarte, 1922, izan ditugu informatzailatzat

260. Olatxeta baserriko Miguel Barandain, 1917.

261. Bixente Zubiri, 1920.

262. Miguel Ramón Zabaleta Errezumeko aitona zena, Mikaela Labaien Aspaitzaga baserrikoa eta Koxme Zabaleta, 1907, Tuteneko, izan dira datu hauek eman dizkigun Patziku Perurenaren informatzaileak.

263. Cf., Leitzako bikoiztasun hau dela eta, Goizuetan (Leitzan ere bai?) ibiltzen dituzten *badaki / badakio*, *bali du / balio du*.

264. Olaso baserriko Manuela Zabaleta, 1910, eta Aspaitzagako Juan Bautista Zabaleta, 1944.

265. Ramón Astibia, 1943.

- "Gizonak holako makina *ekui* ta nola a(r)i den! Beizak ho(r)i".

Goizuetan sortu eta Leitzan bizi den Patziku Perurenaren lanean *izaki* harrapatu dugu gehienetan, baina *jakinki* eta *edukio* ere badarabiltza. Leitzakotzat jo behar den ondar forma hau honela darabil:

"Iturritik ur zuri garbia ekarteko (sic) maiz erabili zuen pegarra, potixa, edo txantxila ordea, begibihotzean barrenago sartua *edukio*, askoz dotoreago irudikatu zuen (...)"²⁶⁶.

Ezkurran *izake* (< *izaki*), *jakinke* (< *jakinki*) eta *egoke* (< *egoki*) ibiltzen dituzte, baina ez puntukari eta ez diosaltzat²⁶⁷; Eratsunen *egoki*, *ariki*, *helduki*, *ibilki* eta *jakinki* segurutzat jotzen ditu gure informatzaileak²⁶⁸, eta *joaki* zalantzazkotzat. Erabilerari doakionez, **-ki** Eratsunen hanpatzailea da, baina ez puntukaria, eta diosaltzat ere franko gutxi ibiltzen bide dute. **Labaienen**²⁶⁹ *ariki*, *egoki*, *helduki* eta *ibilki* erabiltzen dituzte diosal egiteko, eta horiez gainera *jakinki* ere bai, hanpadura adierazteko; **Saldiasen**²⁷⁰ *egoki*, *ariki*, *helduki* eta *ibilki* erabiltzen dituzte, beti hanpadura adierazteko, ez diosal gisara; bigarren modu honetara erabiltzea Labaiengotzat jotzen dute Saldiasen.

Malerrekan Zubietako informatzaileak²⁷¹ **-ki** puntukari gisa ez du ezagutzen; diosal egiteko *ariki*, *egoki*, *helduki* eta *ibilki* seguruak dira, eta *joaki* zalantzakoa; hanpadura markatzeko *ariki*, *egoki*, *helduki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki* eta *joaki* ibiltzen ditu. *Ekarki* eta *eramaki* ez ditu erabiltzen, baina ez ditu txartzat jotzen. **Iturenen**²⁷² ere ez dute puntukaritzat ibiltzen; baina bai diosal egiteko *-ariki*, *egoki*, *helduki*, *ibilki* eta gutxiago *joaki-* eta hanpadura aditzera emateko *-ariki*, *egoki*, *ekarki*, *eramaki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki*, *joaki-*. **Dona-marian**²⁷³ Iturenen bezal-bezala erabiltzen dute, *ekarki* zalantzan jartzen duten arren; gaitzetsi, halere, ez dute egiten; **Oitzen**²⁷⁴ aurreko bi herrietan bezala ibiltzen dute, bai eta **Urrotzen** ere²⁷⁵. **Donezteben**²⁷⁶ ere Iturenen bezala ibiltzen da **-ki** aditz-atzizkia; **Sunbillan**²⁷⁷ hanpadura adierazteko *-ariki*, *egoki*, *ekarki*, *eramaki*, *helduki*, *ibilki*, *izaki*, *jakinki* eta *joaki-* eta diosal egiteko *-ariki*, *egoki*, *helduki*, *ibilki*, *joaki-* ibiltzen dute, baina ez puntukari gisa.

266. *Euskarak sorgindutako...*, 75.

267. Dolores Gastearena, 1944.

268. Félix Deskarga Bengoetxea, 1931.

269. Joaquina Etxegia, 1927, eta Jose María Elizondo, 1953, izan ditugu informatzaile.

270. Francisco Urrutia, 1929, eta Isabel Baleztena, 1949.

271. Jesús Santesteban, 1926.

272. Jesús Iñigo Ariztegi, 1937.

273. Santiago Inda Arregi, 1924.

274. Teresa Mindegia, 1922.

275. Herri honetako informatzaile gazteak (Frantzisko Agesta Indakoetxea, 1941) zaharrak (Victoriano Arzuaga, 1925) baino oztopo gehiago jartzen ditu.

276. Francisco Arregi, 1920.

277. Esteban Agesta, 1925.

Bortzirietan Bera eta **Etxalar**²⁷⁸ dira puntukaritasuna adierazteko **-ki** aditz-atzizkia erabiltzen duten herri bakarrak; honelako adizkiak aurkitzen ditugu hemen: *joaki naiz / joaki nintzen, ibilki naiz / ibilki nintzen, eramaki dut / eramaki nuen, ekarki dut / ekarki nuen*. Hanpadura adierazteko hurrengo hauek ibiltzen dituzte: *helduki, ariki, ibilki, joaki, egoki, izaki, jakinki, ekarki* eta *eramaki*. Agur egiteko orduan erabil daitezkeenetan segurutzat hauek jotzen dituzte: *helduki, ariki, ibilki, egoki*²⁷⁹; *joaki, ekarki* eta *eramaki* zalantzazkotzat ematen dituzte.

Lesaka²⁸⁰, **Arantza**²⁸¹ eta **Igantzin**²⁸² ez dute erabiltzen puntukaritasuna adierazteko, baina bai hanpatzeko *-ariki, egoki, ekarki, eramaki, helduki, ibilki, izaki, jakinki* eta *joaki* seguruak dira, *biziki* dudazkoa– eta diosal egiteko *-ariki, egoki, helduki, ibilki–*.

Zugarramurdi eta **Urdazubin -ki** Beran eta Etxalarren bezala puntukaritzat, diosaltzat nahiz hanpatzailetzat ibiltzen dute²⁸³.

Baztanen -ki diosal eta hanpatzailetzat erabiltzen dute, baina ez puntukaritzat. **Amaiurren** sortu eta aspaldi honetan **Arizkungo** Iriberria Baserrian bizi den Magdalena Indak *ariki*²⁸⁴ (= ari zarete?), *ibilki* (bazabiltzate?) eta *egoki* (= bazaudete?) ibiltzen dituztela dio norbait agurtzerakoan, hirugarrena agian ez hainbeste, baina ez *biziki, etorki, helduki* ez *joaki (gaki)*. Hanpatzaile moduan *egoki* eta *edukiki* ez bide ditu ibiltzen, eta beste toki batzuetan arruntak diren “azkenekotan egoki eta ongi zegoela pentsatzen zuen” bezalako perpausaren orde “azkenekotan egon eta ongi zegoela” ibiltzen dutela dio, eta “pobrea zela uste nuen, baina anitz diru edukiki”-ren orde “pobrea zela uste nuen, baina anitz / hainbertze diru bazeukan / bazuen”-en moduko zerbait. Bestalde, *izaki –*“dirua izaki baina burugabea zen”– eta *jakinki –*“euskaraz ez zekiela uste nuen, baina ederki jakinki”– erabiltzen dituztela dio, baina ez *ekarki* eta *eramaki* edo *joaki (gaki)*, nahiz aurreneko biak ongi ulertzen dituen.

278. Etxalarko gure informatzaileak Javier Indaburu, 1912, eta Virginia Arburua, 1919, izan dira; Berakoak Juan Arribillaga, 1918, eta Martín Artieda, 1932.

279. Beran *zer, egoki?*-ren ordainetan *zer, egon?* ere erraten dute, baina inola ere ez *zer, egoten?*

280. Josetxo Susperregi, 1946, Margarita Susperregi, 1940, eta Guillermo Agara, 1919, izan ditugu informatzaile. Lehenbiziko biek diosaltzat gutxi erabiltzen dutela diote, eta erabiltzekotan *ariki* baizik ez. Guillerrok, ordea, erabiltzen direla dio, eta gure harridurarako *zer, biziki?* erabili zuen, lehenengo adibide bezala, bere gisa, baina kontutan hartu behar da ama Etxalarkoa zuela. Nolanahi ere, badirudi Lesakan Bortzirietako beste herrietan baino arrotzago egiten zaiela **-ki-dun** adizkiak diosal moduan erabiltzea.

281. Pepi Sorondo, 1940.

282. Antonio Lizardi, 1927.

283. Fermín Mendiburu (Zugarramurdi, 1931) eta Jesús Cenoz (Urdazubi, 1941) izan ditugu informatzaile.

284. 1925 inguruan sortua da. Hemen garrantzia egiturari ematen diogu, ez formari; hots, informatzaileak **aiki** erran bazuen ere, guk **ariki** sartu dugu, eta berdin beste batzuetan.

Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arizkun eta Lekarozko gure beste informatzaileek²⁸⁵ puntukaritzat ez dute ibiltzen, baina bai diosal egiteko eta hanpadura markatzeko. Azken honetarako batez ere *jakinki*, *egoki* eta *helduki*; gutxiago *ibilki*, *eramaki*, *ekarki*, *izaki* eta *joaki*. Azpilkuetako informatzaile gazteak *jakinki*, *helduki* eta *egoki* besterik ez duela erabiltzen dio. Diosal egiteko *helduki*, *ariki*, *ibilki* eta *egoki* erabiltzen dituzte; *joaki* zalantzazkoa da.

Almandoz-Oronozen ere diosal egiteko eta hanpadura adierazteko erabiltzen dute, Iturengo modu berean²⁸⁶.

Berrotako gure informatzaileak²⁸⁷ Arizkunen onartzen duten “zer, ariki?” ez du ontzat jotzen –honen orde z *zer*, *ari zarete?* darabil– ez eta ere “zer, ibilki?”. “Egoki?” ere ez du ontzat jotzen eta honen ordainez *bazaudete?* edo *deskan(t)suen?* ematen du. Hanpatzailea denean, aldiz, *biziki*, *egoki*, *ibilki* (iragankorra eta iragangaitza), *izaki* (iragankorra nahiz iragangaitza) eta *jakinki* onesten ditu: “aitzinean *izaki* eta ez ikusten”, “ongi zegoela eta azkenekotan *egoki*”, “herrian *biziki* eta elkar ezagutzen ez”, “dirua *izaki* baina bera burugabea *izaki*”, “medikuak ez ibiltzeko erran zion eta hala ere *ibilki*”, “erran diot hori ez ukitzeko eta hala ere *ibilki*”, “hori ez zekiela uste nuen eta *jakinki*”. Beste alde, “akitzen ariki, eta akitu artean onik ez” ez du ontzat jotzen.

Zigan gutxienez hanpatzailetzat erabiltzen dela badakigu, Damaso Intzaok bildurikako esaera zaharrei esker (ikus gorago).

Bertizarana bailarako Legasa herrian²⁸⁸ Iturenen bezala ibiltzen da -ki.

Atetz bailarako Beuntza herrian ere ibiltzen dute²⁸⁹ -ki aditz-atzizkia, baina ez puntukaritzat ez eta diosaltzat ere. Bai, ordea, hanpatzaile moduan. Hortaz, Baztan eta bestetako *ariki?* *ari zarete?* da herri honetan, *ibilki?* *bazabiltzate?* eta *egoki?* *bazaudete?* (*baziñaute?*). Guk proposatutako “auzoak *izaki*, eta elkar ezagutzen ez”, “pobrea zela uste nuen, eta diru asko *izaki*” ontzat hartzen ditu, alegia, berak ibiltzen dituela dio. Orobat, “euskaraz ez zekiela uste nuen, eta ederki *jakinki*”. *Edukiki*, aldiz, ez du erabiltzen, eta “pobrea zela uste nuen, eta diru asko edukiki”-ren orde z “pobrea zela uste nuen, eta diru asko *bazuen*” eman digu. *Eramaki* eta *ekarki*, ordea, bai, ibiltzen ditu, honela: “ez zuela eraman behar esaten zuen, eta *eramaki*”, edo “uste nuen ez zuela ekarriko eta *ekarki*”. Guztiarekin ere, beste hau ere atera zaio: “ez nuen uste eraman behar zuela, eta orain *eraman*”. *Ikusiki*, *nahiki* ez ditu ezagutzen.

285. Jesús Etxeberria (Amaiur, 1936), Jose Migel Azkarraga (Azpilkueta, 1968), Carmen Iturralde (Erratzu, 1924), M^a Victoria Juanikotena (Arizkun, 1912), Luis Elizegi (Lekaroz, 1944).

286. Sortzez Almandozkoa izan arren Oronozen bizi den Estefania Inda (1935) izan dugu informatzaile.

287. María Luisa Santesteban, 1924. Kasu honetan kontuan hartu behar da, lehenik, informatzaile hau espaldidanik herritik kanpo bizi dela, eta bigarrenik, galdeketa -ki diosal egiteko erabiltzen ez duen Beuntzako bere senarrari egin ondoan egin geniola.

288. Justo Martirena, 1933, eta Migel Hernandorena, 1936.

289. Enrike Nazabal, 1924.

Beuntzan *ibilki* eta *joaki* ez omen dituzte erabiltzen ezta hanpatzeko ere; zer erranik ez *biziki*. Bai ordea *ariki*, *egoki* eta *izaki* (iragankor nahiz iragan-gaitz gisa): “ez zuela egon behar esaten zuen eta han egoki”, “aurrean / aitzinean egoki eta ikusten ez”, “azkenekotan egoki, eta ongi zegoela esaten zuen”, “aurrean izaki eta ikusten ez”, “nor eta hura izaki”, “dirua izaki, baina bera burugabea izaki”, “ez zuela ari behar eta ariki”, “akabatzen ariki eta akabatu arteko onik ez”. *Biziki* eta *joaki*, erran bezala, ez ditu ibiltzen gure informatzaileak; bestetako “auzoan biziki eta ezagutzen ez”, beste modu honetara erraten dutela dio: “auzoan *bizi* eta ezagutzen ez”. “Etxera zihoala uste genuen, eta mendira *joaki*” ere ez du ontzat ematen.

Basaburu Nagusian, **Erbetiko** gure informatzaileak²⁹⁰ -ki diosal egiteko ibiltzen duela dio, baina ez beti. Adibidez, *zer*, *egoki*?-ren ordainez *ze(r) a(r)i ga(ra)*, *egonean?*, *ze(r) a(r)i ga(ra)*, *deskantsun?* erraten duela dio, baina *zer*, *ibilki?* ibiltzen duela. Perpaua hanpatzeko *izaki* ez du beti onartzen, eta *egoki*, *ibilki* eta *joaki* behin ere ez, eta gure “hori ez duk ezagutzen?, herrikoa izaki eta!”, “medikuak ez ibiltzeko esan dizu eta hala ere ibilki”, “Iruñera *joaki* eta zer kostatzen zaik hori eramatea?” beste modu honetara ematen ditu: “ho(r)i ez al duzu eza(g)utzen?, herrikoa *da ta!*”, “medikuek ez ibiltzeko esan, ta nola *za(b)iltze!*”, “Iruña(r)a *zoazi* ta nola ez duzu e(r)aman nahi?”.

Guztiarekin ere, “hainbeste diru izaki gizonak eta hola ibili behar!” ontzat hartu du, eta bere gisa honako hau bota du: “hemen holako egur pile *izaki* ta o(r)ain egurketa kanpo(r)a!”. *Jakinki* ere ontzat hartzen du, baina inoiz edo behin guk emandako ereduak aldatu egiten ditu, -ki horren erabilera baztertuz. Ez ditu beti aldatzen, halaz ere: “*jakinki* traktorea etxean dagola eta behiekin nora *zoazi?*”.

Berueten ez dute -ki puntukari eta diosaltzat ibiltzen, baina bai perpaua hanpatzeko. Herri honetan seguruak diren formak hauek dira²⁹¹: *ariki*, *edukiki* (*eukeke*), *helduki*, *ibilki* (*iilleke*), *izaki* (*izake*), *jakinki* (*jakinke*), *joaki* (*joake*). *Biziki* dudazkoa da, eta *ekarki*, *eramaki*, *egoki*, *etorki* eta *ikusiki* arbiatzen dituzte.

Itsasoko gure informatzaileak²⁹² -ki ez du diosal egiteko erabiltzen, baina bai perpaua hanpatzeko: *edukiki* (“ondoan *eukiki* / *yauken* ailtzurre...”), *etorki* (“holako garaietako esan de etorriko dela ta ez *etorki*”, *izaki* (“(horrek) traktorea *izaki* (*izeki?*) ta nola ibiltze(n) ote (d)uk behiekin (ed)o idikin?”), “ba(r)atzen *izaki* ta nola ekarri (d)ok?”), *jakinki* (“ho(r)i nola jua n ote (d)ok autobusen *jakinki* nik Iruña jua behar nuela ta?”). *Egoki* ez du beti ontzat hartzen: gure “ez al nauzu ikusi, ni han egoki eta!” “han *ne(g)oken ta*, nola ez dek ikusi?” bilakatzen du. Zenbaitetan, alabaina, erabiltzen du: “gizona ongi *e(g)oki ta*, nola ez ote (d)ok ateratzen?”.

290. Unanua etxeko Juan Ignacio Jaunarena Ezkurra, 1945.

291. Datuok NUP-en euskara-irakasle dagoen Imanol Rekondo beruetarrari zor dizkiongu. Honek izan dituen Berueteko informatzaileak Petrixonea etxeko Valentín Arano Olano, 1910, eta Iturriaga etxeko Miguel Teletxea Arangoa, 75, izan dira.

292. Francisco Madoz, 1935.

Biziki, ekarki, eramaki, helduki, ibilki eta joaki ez ditu ontzat hartzen eta gure “ez eramateko esan nion, ta hala ere eramaki”, “zakur hori ez ekartzeko esan dizut eta hala ere ekarki!”, “askotan esan diot behiak horren goiz etxera ez ekartzeko, eta hala ere berak ekarki!”, “seiak dira eta bera ez helduki!”, “medikuak ez ibiltzeko esan dizu eta hala ere zu ibilki”, “hara joaki eta, zer kostatzen zaik hori eramatea?”, “ondoan biziki eta, ez al duzu ezagutzen?” beste gisa honetara ematen ditu: “behi hoik ez ekartzeko esan dit, ta *nola ekartzen ttok!*”, “...., eta *ekarri in behar halai!*”, “esan neoken ez e(r)amateko ta hala e(re) *nola e(r)aman do(k)?*”, “holako garaietako esan de etorriko dela, ta *ez dok (ba) heldu!*”, “medikuk esan zizun ba zui ez ibiltzeko, ta halai *ibili itten za(ra)!*”, “Iruña(a) *juan behar*, ta ze(r) gostatzen zaik ho(r)i e(r)amatea?”, “ondoan *bizi ((d)ok)* ta *nola ez dok iza(g)utzen?*”.

Guztiz ere, *ekarki, helduki* (“hemen niok esperoan ta *ez duk heldu!*” dio, eta ez du “hemen negok esperoan eta ez helduki” ontzat jotzen), eta *ibilki* zenbaitetan ibiltzen dituztela dio.

Udabeko gure informatzaileak²⁹³ -ki ez du puntukaritzat ibiltzen, ez eta diosaltzat ere. Hortaz, *ariki?*-ren ordez *ari zarete?* darabil, *ibilki?*-ren ordez *paseoan zabilzate?*, *egoki?*-ren ordez *deskantsuan zaudete?* eta *biziki?*-ren ordez *bizi haiz?*, *bizi zarete?*. Hanpatzailatzat ere ez du onartzen, eta ez dugu uste ibiltzen duenik: gure “ez ekartzeko esan nion eta hala ere ekarki” adituta, “ez ekartzeko esan nion eta hala ere *ekarri du*” edo “ez ekartzeko esan nion eta hala ere *ekarri (eg)in du*” dio berak, gure “euskaraz ez zekiela eta hala ere jakinki” Udaben “euskaraz ez zekiela eta hala ere *badaki*” edo antzeko zerbait esango luketela dio.

Gure “umea izaki (eta), ez daki zer pasatzen den munduan” entzunda “umea da, ez daki munduan zer pasatzen den” ateratzen zaio; “leitzarra izaki eta, euskaraz ongi hitz egiten du” ere ez du ontzat hartzen; “pobrea zela uste nuen, eta diru asko edukiki!” beste modu honetara errepikatzen du: “pobrea zela uste nuen, baina diru asko *dauke / du*”. “Aurrean izaki eta ikusten ez!”, “aurrin *izan* eta ez ikusten!”, “aurrin *e(d)uki* eta ez ikusten!” bilakatzen du; “etxean ez zuela egon behar eta egoki!” ere ez du ontzat hartzen, alegia, ez du beretzat hartzen, eta berdin “etxera zihola uste nuen eta mendira joaki!”, “auzoan biziki eta ezagutzen ez!”. Ondar hau “auzoan *bizi* eta eza(g)utzen ez!” bihurtzen du.

“Hi izaki niri deika aritu dena!” “hi *hintzen* ne(r)i deika a(r)itu dena!” da informatzaile honen hitzetan; *eramaki* ere arbuiatzen du, eta gure “nik zertako hartu behar dut kamara, hik bideoa *eramaki eta*” “nik zertako hartu behar dut kamara, hik bideoa *ba(d)uk eta*” bilkatzen. *Helduki* eta *ibilki (eta)* ere ez ditu bere egiten; bigarren hori dela eta, gure “medikuak ez ibiltzeko esan dik eta hala ere ibilki!”, “mediku(a)k ez i(b)iltzeko esan dik eta hala ere *i(b)ili (eg)itten yaiz!* bihurtzen du. “Hara joaki eta, zer kostatzen zaik hori eramatea?” “hara *juan* eta, ze(r) gostatzen zaik hori e(r)amatea?” erranen lukeela dio, eta “nola pintatuko diat etxea nik, hi egiten ariki eta!”, berriz, “nola pintatuko di(a)t nik itx(e)a, *hi (eg)itten a(r)i yaiz (e)ta!*”.

293. Antonio Nuin Ziganda, 1926.

Luzaiden -ki puntukarizat ez dute erabiltzen, alegia, ez dute *ibilki naiz* edo *joaki naiz*-en modukorik erraten. Diosaltzat gure informatzaileak²⁹⁴ *zer, ibilki?* eta *zer, egoiki?* ibiltzen ditu, bigarren forma honen baliakidea den *zer, egoiten?* arruntagoa bada ere, itxuraz. -Ki hanpatzailea ere ohikoa da Nafarroa Behereko herri honetan; eransten zaion aditzak batzuetan, beste toki anitzetan agitzen denaz bestaldera, ez du bukaerako -n galtzen: *eremanki, izanki, jakinki, jinki, ukanki*, eta beste batzuetan tarteko -i- bat azaltzen da: *egoiki, joaiki*. N-rik ez duten beste forma hanpatzaileak *ekarki (kárki)* eta *ibilki* dira.

Iduki bakarrik musean ari direlarik erabiltzen dute, eta beraz, ez da harritzeko hizkera arruntean ez aurkitzea; *izanki* eta *ukanki*, biak, iragangaitz nahiz iragankortzat ibiltzen dituzte (*izan niz, ukan niz, izan dut, ukan dut*), eta hori dela eta, *izanki* eta *ukanki* ‘izan’ nahiz ‘eduki’ adierez ibiltzen dira. Beste leku anitzetako *ariki* eta *biziki*-ren ordainez *ari izanki* eta *bizi izanki* erabiltzen dituzte. Adibideak:

- “*Jakinki* lekurik ez zela eta sartu behar!”
- “Zer, unano *jinki*, eta ja ([xál] ere jan gabe joan?”
- “Han *izanki ta*, deus ([yéuʃ]) ere jakin gabe itzuli!”
- “Nola ez zizte haren ikustera joan, *jakinki (ta)* han bizi zela?”
- “Burutik untsa dea? Maingu *ibilki* eta mendi kaskorano joan behar!”
- “Tenorea *joaiki* ta xekaria (‘xerkaria’, zerbaiten xeka (‘xerka’) heldu dena) *ez heldu*.”

Gure informatzailearen arabera, -ki bakarra eta -ki eta eta juntagailua duten aldaerak berdín-berdinak dira adieraz, elkarren (zeharo) errankideak²⁹⁵.


6. -KI HAURRAREN HIZKERAREN GARAPENEAN

Interesgarria iruditu zaigu, hizkuntzaren jabekuntzaren alorrean sartuz, haurraren hizkuntzaren garapenean -ki aditz-atzizkia noiztsu agertzen den azaltzea. Aztertzen ari garen puntu honek ikerketa zehatzagoa eta sakonagoa eskatzen badu ere, zertxobait aurreratzeko moduan gaudela uste dugu. Bi haur euskaldun elebakarri²⁹⁶ egindako jarraipenaren ondorioz bildutako *corpus*-az baliatu gara interesatzen zaizkigun datuak lortzeko. *Corpus* hori haurrek 1; 06 adina (urte 1’erdi) zutenetik hasi eta lau urte bete arte hamabostetik hamabostera burutatako grabaketek osatzen dute. Grabaketa hauek egiteko bideoa erabili zen, saio bakoitzak hiru ordu laurdeneko iraupena izan zuelarik.

294. Bartzelona bazterretzeko Añes Kaminondo, 1922. Eskerrak eman nahi dizkiogu honen semea den Peio (ez Pello oraingoan) Kamino Kaminondori, eman digun laguntza handiagatik.

295. Eta honen balioa indargarria izan daiteke (ikus *EGLU-IV*, 48-49. orr.); *izaki*-k, kausazkoa izateko, konparazioe, ez du eta horren beharrik, nahiz adiera hori duenean maiz juntagailuak lagundurik aurkitzen dugun.

296. Bianditz Narbarte Makazaga eta Egoitz Zubiri Gaztelumendi, biak 1990eko ekainean jaiok.



Bi haurrak goizuetarrak dira, eta lehen erran dugun bezala herri honetan -ki-k bizi-bizirik dirauenez, oso toki aproposa da aztergai dugun atzizki hori noiz agertzen hasten den behar bezala ikertzeko. Honelako formak, lehenengo aldiz, bi haurretako batek hiru urte bete baino lehen burututako ekoizpenetan aurkitu ditugu: lehenbizikoa 2; 10; 11 (bi urte, hamar hilabete eta hamar egun) adinarekin jaso dugu. Haurra, Egoitz, dituen goxoki guztiak jaten ari da eta helduak galdetu dio ez ote duen anaia zaharragoarentzat alerik jaso behar eta, umea ume izaki, hona hemen bere erantzuna (hitz osoak emanik):

- Hola eta nik hau jango dut eta, Ibaic(k?, n?) goxokiak kotxean ixaki.

Bigarren adibidea 2; 11; 10 (bi urte, hamaika hilabete eta hamar egun) adinarekin bildutakoa da. Heldua (H) eta haur bera, Egoitz (E), puzzle bat osatzen ari dira:

H: Non den badakit, oiloa! Hor aurrean!

E: Xe?

H: Kubo horia! Hortxe, hortxe, hortxe!

E: Non ixaki!

H: Eh?

E: Non ixaki! Hoor!

H: Hor, hor izaki, eh!

Ez dugu adibide gehiago paratuko irakurlea asper ez dadin, baina mostreatako balio dutela uste dugu. Bigarren adibidea dela eta, haurrak ez du behar bezala erabiltzen, baina ikus daiteke erabili erabiltzen duela, oraindik ere erabilera zuzena txoil finkatua ez izan arren. Dudarik ez dago kasu honetan haurrak hanpatu egin nahi duela perpausa, indar berezia eman nahi diola, baina ez du horretarako egitura zuzena bereizten. Badirudi, beraz, perpausak hanpatzeko gaitasun hori oso goiz barneratzen duela haurrak, beste oinarrizko hainbat egitura beretu baino lehen (aditz laguntzailearen aldiaren bereizketa eta mendeko perpausak eraikitzeko zenbait atzizkiren erabilera, *-(e)nean* eta *-(e)lako* erraterako, barneratu baino lehen, adibidez).

LABURPENA

Lan honen egileek *-ki* aditz-atzizkiaren azterketa sakona egin dute, helburutzat gure egunotako erabilera okerra salatu eta ahal den neurrian zuzentzeko bidea urratzea hartu dutelarik. Lanak atal bat baino gehiago ditu: lehenbizi, aipatu atzizkiak literaturan eta testu zaharretan izan duen eta duen presentzia aztertzen da; bigarrenik, euskal gramatikariak esan dutena aipatzen eta iruzkintzen da; hirugarrenik, *-ki-k* Nafarroan duen erabileran sakontzen da, atzizkia perpaus hanpadurarekin lotuaz. Azkenaurreko atalean *-ki-k* herrialde horretan duen hedadura eta izan ditzakeen erabilera desberdinak (hiru: puntukaria / diosal egitekoa / hanpatzailea) ikertzen dira. Bukatzeko, eta labur-labur, *-ki* umearen hizkeran zer adinetarako azaltzen den ikusten da.

RESUMEN

Los autores de este trabajo han realizado un estudio detallado del sufijo verbal *-ki*, con objeto de denunciar el empleo inadecuado que del mismo se hace actualmente y de sentar las bases de su uso correcto. El trabajo tiene varios apartados: en primer lugar, se examina la presencia que el susodicho sufijo ha tenido y tiene en la literatura vasca y en los textos antiguos; en segundo lugar, se comenta lo que los gramáticos vascos han dicho sobre el tema; en tercer lugar, se profundiza en el empleo que de *-ki* se hace en Navarra, relacionándolo con la enfatización de la oración. En el penúltimo apartado se investigan la extensión y los usos diferentes que *-ki* puede tener (son tres:

puntual / de saludo / enfático). Para terminar se ve, muy brevemente, a qué edad aparece -ki en el habla del niño.

RÉSUMÉ

Les auteurs de cet ouvrage ont réalisé une étude en détail du suffixe verbal -ki, à l'objet de prévenir, de nos jours, un emploi incorrect ainsi que d'établir les bases d'un emploi correct. L'ouvrage comprend plusieurs sections: tout d'abord, une étude à propos de la présence du dit suffixe à travers la littérature basque et les textes anciens; puis, les commentaires à ce sujet des grammairiens de la langue basque; une troisième section présente une profonde analyse de l'emploi de -ki dans la Navarre, par rapport au ton emphatique de la phrase. La quatrième section porte sur une recherche à propos de l'étendue et des divers emplois de -ki (à savoir, ponctuel/de salutation/ emphatique). Enfin, on trouve une brève exposition concernant l'apparition du suffixe -ki lors du développement du langage des enfants.

SUMMARY

The authors of the present paper present a detailed study of the verbal suffix -ki to the object of reporting on its current inappropriate use, and of laying the foundations for its correct usage.

The paper comprises several sections: firstly, the past and current presence of the above mentioned suffix in the Basque literature and in old writings is examined, secondly, what the Basque grammarians have said about the topic is commented, and, thirdly, the use of -ki in Navarre and its relationship with sentence emphasis is studied.

In the penultimate section the extension and different uses of -ki (specific, for greetings, emphatic) are investigated. Finally, the age when a child first begins using -ki is briefly seen.

